



# ARGIA

Por lo expuesto y en un intento de solucionar este asunto, tener en cuenta que se irán a vías alternativas más gravosas y costosas para ambas partes (en especial para el cliente, como querrelados), como pudieran ser acciones frente a los tribunales, el nombre de nuestro cliente, les REQUERIMOS para que en el plazo improrrogable de siete (7) días desde la recepción de esta carta, procedan a lo siguiente:

- I) eliminar el artículo objeto de controversia;
- II) pago a nuestro Cliente de los costes en los que está incurriendo nuestro Cliente para la defensa de sus legítimos intereses mediante la remisión de este requerimiento formal;
- III) pago a nuestro Cliente del importe de 15.000 euros en concepto de daños por los perjuicios sufridos con ocasión de la publicación de información inveraz.



26-33. orriak

## Solway meatzaritza multinazionalaren erasoa ARGIAren aurka

### HAU DA GURE ERANTZUNA

# 2.830 | 2023 / 06 / 25 | 4,00 €



**Espainiaren bonbardaketa kimikoa amazigen kontra**  
12 | NAZIOARTEA



**“Ez nintzengan produktiboa, psikiatrikoan sartu nintzen”**  
52 | HUG ROGER FIGUERA



**LARRUN #286**  
**Bidart anaiak**

KAZETARITZA EZ DA DELITUA

KAZETARITZA EZ DA DELITUA

KAZETARITZA EZ DA DELITUA

KAZETARITZA EZ DA DELITUA





KOKOTEKO BAT  
MEREZI DUZUE,  
BAINA, EZ DIZUET  
NIK EMANGO

# NO!

ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

AUTO BIDAIK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.  
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.  
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINETAKOAK.  
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.  
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN  
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

**Komiki berria**

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

**azoka.argia.eus**

(+34) **943 37 15 45**

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



## Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | MAIALEN ARTEAGA
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | ENEKO GORRI

## Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: HUG  
FIGUERA / ELISENDA TUNEU
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO  
BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ESPAINIAKO AIRE ARMADA

### 12 | ARMA KIMIKOEN MEHATXUA

Urko Apaolazak ondu duen Net Hurbilean azaldu du Arrifeko gerran Espainiak zenbat iberita bonba jaurti zituen eta horrek zer ondorio izan dituen amazig herrian. Baina Lehen Mundu Gerran ere erabili ziren arma kimikoak eta sobratutako munizioa itsas hondora jaurti zuten. Urteekin kapsulak herdoildu dira eta beraz, duela ehun urte eragindako ingurumen sarraskia errepikatu daiteke.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | LAURA PENAGOS

### “Emakume arrazializatu eta euskalduna izatea exotikoa da, nekagarria eta arrazista”

Reyes Ilintxeta

26 | SOLWAY, UTZI ARGIA BAKEAN

### Kazetaritza ez da delitua

Leire Artola

34 | POLITIKA | ANALISIA

### EH Bilduren arrakastaz

Asier Blas

42 | KULTURA | “BEITA” WEBSAILA

### “Sexu eraso batean hartzen diren jarrerak plazaratu ditugu”

Irati Irazusta

44 | KULTURA | “EL ETERNAUTA” KOMIKIA

### Eternitatearen nabigatzailea

Julen Azpitarte

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA





# Mendia matxinatu da

Frantziako Estatuan bata bestearen atzetik ari dira pizten protestak. Horietako asko, proiektu txikitzaileen aurkakoa da. Energia krisiaren aitzakian eta Europako Next Generation funtsek hauspotuta, "planeta salbatzeko" ingurune naturalak (ere) porlanez betetzen jarraitu nahi dute. Proiektu faraonikoetan faraonikoena ezaguna zaigu: AHT. Euskal Herrian, Frantzian, Suitzian edo Italian, hamarkadak eta gero "estrategikoa" izaten darrai mendiak zulatzen jarraitzeak. Nola ulertu bestela Lyon eta Turin lotu nahi dituen trenbidearen kasua? Ehunka kilometrotan zulaketak egin behar dituzte Alpeak zeharkatzeko. Tartean, 58 kilometroko tunel bat. 26.000 milioi euro publikoren truke.

📍 Savoian, asteburuan milaka lagunek protesta egin dute AHTren aurka "mendia matxinatu da" edo "denok gara ekoterroristak" lelopean.

NICOLAS LIPONNE / HANS LUCAS

🔥 AXIER LOPEZ







# %87ko desgaitasuna duen ikasleari behar duen laguntza ukatu dio Jaurlaritzak

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**%** 87ko desgaitasun motorrarekin, Usurbilgo gazte batek ikastorduz guztietan laguntzailea izan du orain arteko ibilbide akademikoan, baina Lanbide Heziketara igaro denean, jardunaldi erdian baino ez diote jarri laguntzailea. Laguntzailerik gabe dagoen orduetan ezinezkoa zaio aurrera egitea, eta ikastetxeak berak lanaldi osoko laguntzailea eskatu du, baina ukatu egin dio Hezkuntza Sailak. Egoera honengatik ikaslea terapia psikologikoan dago.

Maria Enriquezen alabak (ez du izena eman nahi) 16 urte ditu. Garun-paralisia du, eta horrek lau gorputz-adarrei eragiten die, mugikortasun arazo handiak ditu. Gurpildun aulki elektrikoa behar du eta ikusmen arazoak ere baditu. "Ikas-materiala egokitzea behar du eta papera edo ordenagailua erabiltzeko laguntza behar du, ezin baitu gelakideen abiaduran egin, eta idatzi ere geldoago egiten du", azaldu du Enriquezek.

Ikasturte honetan Usurbilgo Lanbide Heziketan Kudeaketa Administratiboa zikloa egiteko, baina, orain arte bezala laguntzailea jardunaldi osorako esleitu beharrean, ikastorduen erdirako jarri diote eta gainerako orduetan berak bakarrik moldatu behar du. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren argudioa, nahikoa izan zitekeela jardunaldi erdia, baita onuragarria ere, autonomia garatzeko. "Eszeptizismoz hartu genuen, eta uste dugu argudioa baino gehiago aitzakiak direla ekonomikoki murrizketak egiteko, baina aukera ematea erabaki genuen, ea benetan hala zen. Berehala ikusi genuen ezetz: hasieratik ikusi zuen alabak ezin zuela ikaskideen erritmoa jarraitu, atzean geratzen hasi zen, gero eta galduago, frustratuago... Autoestimuan izugarri eragin dio, zama bat dela pentsatu eta ikasketak utzi nahi izan ditu, harremanei ere eragin die, isolatzeraino", dio amak.

Egoera konpontzeko eskaerek administrazioaren ezezkoa jaso dute bueltan. "Urte oso gogorra izan da, eta osasunean eta bizitzan pertsonalean eragin dio.

**"Autoestimuan izugarri eragin dio, zama bat dela pentsatu eta ikasketak utzi nahi izan ditu, harremanei ere eragin die, isolatzeraino"**

Ikasten jarraitzen du, eta baita terapia psikologikoan ere. Asko hitz egiten da nerabeen buru osasunaz; badakite zer nolako ondorioak dituen egiten ari direnak?"

Bigarren hiru hilekoaren hasieran eskaera egin zion zentroak berak Hezkuntza Sailari: lanaldi osoko laguntzailea behar zuen ikasleak, "agerikoa zelako ez zegoela autonomiarik jardunaldi erdian". Administrazioak uko egin zion eskaerari. "Argudioa izan da esleitutako laguntza ikasturte horretarako aurreikusitako diren baliabideekiko egokia dela".



Ez ikastetxeak, ez familiak ez zuten amore eman. Hirugarren hiru hileko hasieran, erreklamazioa egin zioten Hezkuntza Sailari. Informazio andana gehitu du ikastetxeak, "zenbat neurri hartu dituzten, eta hala ere zailtasunek bere horretan jarraitzen dutela". Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen defentsan lan egiten duen Gipuzkoako Elkartu Federazioak ere txostena gehitu du, lanaldi osoko laguntzailea eskatuz eta hori legalki argudiatuz. Ikasturtea amaitzear, ez dute erantzunik jaso, "eta oraintxe bertan, ez dut erantzunik espero, hurrengo ikasturterako laguntza esleitu diotelako dagoeneko: %50ekoa berriz ere. Alabak esperoan jarraitzen du, jardunaldi osoko laguntza jarriko dioten esperantzaz, badakielako hori gabe ezin duela".

## **"AMORE EMANGO DUZULA PENTSATZEN DUTE"**

Maria Enriquezen hitzetan, "utzi dioten alternatiba bakarria ikasketak bertan behera uztea da, bertan behera uztea formatzeko, garatzeko eta enplegua eta etorkizun oparora izateko aukera. Behin derrigorrezko hezkuntza amaituta, kito? Hezkuntza inklusibo baterako eskubidea oztupoz eta trabaz betetako ibilbidea da, erreklamazioz eta itxaronaldiz josia, hurrengo ikasturtean zer gertatuko den ez dakizun angustiarekin", salatu du. "Ez duzula borrokatuko eta amore emango duzula pentsatzen du administrazioak, familia askok hala egiten duelako, ez baitute indarrik edo aukerarik... Oso zaila da honi guztiari aurre egitea".

Legea eskuan, desgaitasunen bat duten pertsonen inguruko hitzarmenak dio sistema inklusiboa bermatu behar dela hezkuntza maila guztietan, tartean Lanbide Heziketan, eta Espainiako Estatuko eta EAeko legedietan ere, mezuak ildo berekoak dira: Enriquezen arabera, legeak azpimarratzen du "behar diren baliabideak eskuratzeko eskubidea dutela ezgaitasun motorra duten ikasleek, ikasketak aukera berdintasunean egiteko". ●



## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Iñaki Ruiz



UXUE APAOLAZA LARREA

Lanez gainezka, leku banatan, bakoitza zaintzekoren batekin... "geratuko gara beste egunen batean". Gero eta galera sentipen handiagoa izaten dut norbaitekin gelditzerik ez daukadanean, ez dut egintzat jotzen "beste egunen batean" hori gauzatuko denik. Orain beti pentsatzen dut, agian, azken aukera zela. Zerrenda zahar batek itzuli nau ziurtasun horretara: irakurketetan heldu egiten ari gineneko liburuen zerrendak. Bizitza aldatzen zizuten uda luze horietako bat, oraindik zer irakurle mota izango ginen definitzeko. *La regenta, Laudanoa eta sutautsa, Viven, La conjura de los necios, Peru Abarka, Raices, Mumia Abu-Jamal... desde la galería de la muerte, Narrazioak, Sargori, Los pilares de la tierra...* Zerrenda hura irakasle batek eskatu zidan. Irakasle hark irakurle bat sumatu zuen klasean, eta idazle egin zuen. Eta eskerrak emateko aukeraren zain nengoan, lorpen bakoitzean bera besarkatzeko gogoia izan badut ere, zain.

Ez dakit, berez, zer den garrantzitsua irakurzaletasunari eusteko, irakasle on bat egokitzea, edo euskara irakasleaz maite-mintzea. Niri bi gauzak gertatu zitzaizkidan, eta agintzen ziguten idazlan bakoitzean ahalegintzen nintzen ume ez agertzen. Irakasleak, zorionez, hala ikusten jarraitu zuen ikasle sasijakintsu hura, ume, eta Urruzunora aurkeztu ahal izateko, berak mekano-grafiatu zuen arkatzez koaderno orri batean zegoen ipuin hura. Liburuak gomendatu zizkidan. Egin nuen kritikaren bat gogor kritikatu zidan. Ume ikusi baina heldu tratatu ninduen. Idazle. Eta gutxi irudituko zaizue, baina liburuak argitaratu ondoren ere neska gazte batek ez du beti tratatu hori lortzen.

"Noizbait topo egingo dut berarekin Oreretako jaietan" pentsatzen nuen. Eskerrak eman nahi nizkion. Duela pare bat urte esan zidaten hil egin zela. Ez naiz inoiz heriotzarekin adiskidetu, gorroto dut. Eta zutabe hau instrumentalizatu eta interes pertsonalerako erabiltzen ari naiz, "eskerrik asko" mingarri bat exorzizatzen. Eta aholku bat: eman eskerrak, lehenbailehen. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Zezenketak

Zezenketen aurka ehunka lagun manifestatu dira Bilbon, Animalistak kolektibo antiespezistak deituta. Zezenketek "Bilboko gehiengo sozialaren interesen aurkako babes politiko eta materiala" jasotzen dutela salatu du kolektiboak.

## Polizia

Bilbon kale saltzaileen aurka oldartu da Udaltzaingoa (gutxienez zazpi polizia patruilako operazioa) eta saltzaileei materiala kentzen saiatu dira. Erasoari aurre egin dio hainbat herritarrek, eta gutxienez pertsona bat atxilotu eta bi identifikatu dituzte.

## Justizia

Frankismoaren krimenen kontrako Euskal Plataformak salatu duenez, instrukzio epaitegiak behin eta berriz ari dira atzera botatzen diktaturako gizateriaren aurkako krimenak ikertzeko eskariak. "Espainiako zigorgabetasuna salatzen segiko dugu".



## EKONOMIA

# Publiko-pribatu elkarlana



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

Urulluk askotan aldarrikatu du sistema kapitalistaren muinean dagoen publiko-pribatu elkarlana, baina lotura hori gaur zertan den azaltzeko inolako asmorik gabe. Publikoa osagarria eta menpekota denean, ezin dituen merkatuaren interesak zanpatu, eta lege bidez inposatutako mugetan garatu behar denean, elkarlana egon badago noski, baina pribatuaren mesedetan eta bere zerbitzura. Beraz, egiari zor, “publikotik merkatua”, “publikoari esker pribatua” edota “publikoaz pribatua” izango lirateke besteak beste, gaurko agintari politiko nagusien ahotan elkarlan hori deskribatzeko entzun beharko genukeen formulazioa.

Zaharren egoitzei buruzko dekretu aldatzeko Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen aginduan, sektoreko langileen eskakizunak jasotzen dira, baita jendar-tean COVID krisian sortutako egonezian ere. Testuan hitz egiten da egoitzen tamainaz eta kalitatezko zaintzarako funtsezkoak diren ratioez; jasotzen da egoitzak ikuskatu behar direla, zerbitzua hobetzea etengabeko ahalegina izan behar duen neurrian. Are gehiago, eztabaida feministetan sortu, ikasi eta garatu diren kontzeptu berri batzuk ere badakartza: pertsonak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema eta zaintza ekosistema, besteak beste.

Horiek guztiak biltzen ditu dekretuaren aldaketak. Eta publiko-pribatu elkarlanerako gaurko eredura eramanen ditu... gauzak orain dauden bezala utzita. Jasotzen dira eskakizunak, baina horietako bat bera ere ase gabe. Eredu berriaz hitz egiten da, baina eredu bere horretan mantentzen da aldi berean. Alegia, publikotik zaintza alorrean dauden interes pribatuak babestu eta ziurtatzen ditu. Pertsonak eta eskubideak edo negozioa zaindu auzian, negozioak irabazi du berriro ere. ●

## ANALISIA



JAGOBA MANTEROLA / FOKU

## Ezkerraren dilema

XABIER LETONA BITERI

Azken aginte egunetan Enrique Mayak Iruñeko Gurutze plazako lur azpiko aparkalekuaren lanak adjudikatu ditu, eta eraikuntza lanak udan hasiko dira. Eraiste lanak ere bai, besteak beste, plazari arnasa ematen dioten zuhaitz ederrak botako dituztelako. Noiz eta haien itzala eta CO<sup>2</sup> xurgatzea inoiz baino beharrezkoagoak direnean. Zertarako eta 340 autori lur azpiko etxea emateko.

Desarrollismoaren adibide bat gehiago da, baina garaiak larritzen du erabakia, besteak beste epe ertainera auto kopurua ez delako arazoa izango hirietan: gero eta gutxiago ekoizten dira, gero eta auto berri gutxiago saltzen dira, eta auto elektrikoak ezingo du inoiz ordezkatu egungo auto kopurua. Espainiako DGT Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren arabera, 2021eko amaieran estatuan 24,96 milioi auto zeuden, eta horietatik elektrikoak bakarrik 79.000. Erabat ezinezkoa da hamabi urtetan kopuru horretara iristea. Malgutasunak malgutasun, kotxe fosilak egiteko 2035eko muga hortxe bueltan dago.

UPN izan ezik, Iruñeko udal oposizioa osorik proiektu horren kontra dago. Baina PSNrengatik egin egingo da, eta berdin horrela beste hamaika proiektuerekin. Dena PSNk EH Bilduri jarritako betoagatik. Askok uste du txanpon berarekin ordaindu beharko liokeela PSNri Nafarroako Gobernuan. Jakina, *corralitoo*-ren garaiak amets, aukera horrek ezer gutxi moduan kitzikatzen du UPNko buruzagi Javier Esparza, eta ezker abertzalea ere aspalditik ari da eraikuntza hura higitzen, orain amore emateko moduan. Orduan? Oraingoz abstentzioa irentsi beharko dute osterara ere EH Bilduko parlamentariak, María Chiviteren gobernari bide emanez. Baina noiz arte?

Boto bilketan emankorra izaten ari zaio orain arteko estrategia EH Bilduri, zalantzarik ez, gutxi-gehiago Hego Euskal Herri ia osoan gainera. Baina, irabazita ere, EAJren, PSOEn eta PPren blokea askoz indartsuagoa da, ikusi zen Gipuzkoa gobernatu zuenean 2011-2015ean, eta ikusten da orain ere. Horrek pragmatismoan sakontzera bultzatzen du gehiengo zabalagoen bila, baina bere fronte zaballean ezker federalista osoa bilduta ere ezin.

Beraz, nola jarraitu bidean zabaltzen eta handitzen, bide horren lausotzeak egungo sistemaren zulo beltzak gupida gabe eta goxo-goxo irentsi gabe? Ezkerra zeruetara gerturatzean bizi duen trauma da hori. Pentsatzekoa da 3.000 boto gehiago lortu izan balitu Joseba Asiron Iruñeko alkate litzatekeela. Orduan, datorren irailean Gurutze plazako zuhaitzak zutik leudeke oraindik, eta alkateak eta Laura Aznalek haien gerizpe goxoan hausnartu ahal izango zuketzen dilemaz.

Edozein kasutan, orain eta hemen ez dirudi ezkerren dilema historikoak aterabide samurra duenik. Datozkigun desazkunde garaien eta eskuin muturra- ren bultzaden bueltan askatu beharko da korapiloa, baina batek daki noren alde. Eta horretan, instituzioak bezain erabakigarriak izango dira kalearen eta lanaren munduak, bestela zulo beltzak berriz ere irentsiko gaitu. ●

50

urte egin dituzte Zuberoako ikastolek. Urteurrenaren ospakizuna egun osoko festarekin amaituko da: ekainaren 24an egingo dituzte ekimenak Eperra eta Basabürüko ikastolek.

5

pediatratik 2k ez dute euskara gaitasuna egiaztatuta, udalerrri euskaldunen mankomunitateko herrietan. Ikerketak erakutsi du ez dela aurrerapen esanguratsurik egon azken urteetan.

82.900

milioi dolar gastatu zituzten iaz arma nuklearretan, arma nuklearrak dituzten bederatzi herrialdeek; 2021ean baino %3 gehiago. Gastuak gora egin du hirugarren urtez jarraian.

*“Eskuin muturreko jarrerak ikusten ari gara Ertzaintzan”*

**JULEN ARZUAGA**

EH Bilduko legebiltzarkidea.

2023-06-16



**“ERASOAK EZ ZUEN ZERIKUSIRIK  
IZAN FUTBOLAREKIN;  
KASUALITATEZ GEUNDEN  
SORIAN”**

**JUANJO ZUBIRIA**

Ion Aranbururen laguna. Aranburu koman dago maiatzaren 27tik, Numantziaren eta Cornellaren arteko partidaren harira Sorian (Espainia) pairatutako eraso ultraeskuindarraren ondorioz.

IRUTXULO KO HITZA (2023-06-16)

*“Eskola bakarrik ez da euskalduntzeko gai. Ongi pasatzeko ekintzetan ere euskaraz aritu daitezkeela eta eremu guztietan euskaraz bizitzeko aukera dutela ikusi behar dute haur eta gazteek”*

**BERGOI MADERNAZ**

Haur eta gazteentzako aisialdian euskara bermatzeko eskatu diete instituzioei Gasteizko gurasoek.

ARGIA.EUS (2023-06-13)





# Hizkuntza eskakizunekin “malgu” jokatuko du Jaurlaritzak

**ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**

**H**ori azaldu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaranek Gasteizko Legebiltzarrean, administrazio publikoko hizkuntza eskakizunak arautuko dituen lege dekretuarengatik galdetuta. Gaineratu du litekeena dela 2023 hasierarako aurreikusita zegoen dekretua ez onartzea indarrean dagoen legegintzaldian.

Dobaranek aurreratu du dekretuaren zenbait irizpide nagusi. Helburu nagusia “herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzea” dela ziurtatu du. Jarraian azpimarratu du egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak direla, eta “malgutasuna” eta “progresibotasuna” aldarrikatu ditu, iragan urteetan emaitza oso onak eman dituztela baieztatuta. Azaldu duenez, lege dekretu berrian eskaera “tokian tokiko errealitate bakoitzera” egokituko da, eta langileekin “malgu” jokatuko da.

Dekretuaren osatzean legelariak pisu handia izaten ari direla azaldu du ere. Dobaranek irudiko, ezagutzen lorpen handiak egin direnez “erabilerarako jautzia” egin behar da, baina jauzi hori “bidezkoa eta arrazoizkoa” izan behar du, langile publikoek “egun duten errealitate” abiatuta. Lehentasuna jendaurreko lanpostuei emango zaiela adierazi du, eta “asimetria” aldarrikatu: esaterako, lanpostu batzuetan euskaraz hitz egitea beharrezkoa izan daiteke, baina ez euskaraz idazteko gai izatea. Nola erabaki asimetria horren aplikazioa? “Logikaz”.

## NOIZKO DEKRETU BERRIA?

Dekretua onartzeko datari dagokionez, Dobaranek azaldu du “luze” joko duela eta ez dela onartu behar “ezinbestean legegintzaldi honetan”. Administrazio publikoko hainbat eragile eta eremu –Ertzaintza, Osakidetza, hezkuntza...– ekarpenak egiten ari direla eta prozesua “bigarren entzuketa fasean” dagoela ziurtatu du. 2022ko apirilean 2023 hasierarako agindu zuen dekretua Bingen Zupiria Jaurlaritzaren bozeramaileak. ●

## NAZIOARTEA



# Naufragioa?

**AXIER LOPEZ**

**G**oiko irudia Joniar itsasoan hartu zuten Greziako kostazainek hilaren 14an. Ehunka pertsona –400 eta 750 artean, hainbat txostenen arabera– ageri dira arrantza-ontzi batean, hondoratu baino ordu batzuk lehenago. Horietako gehienak eta itsasontziko sotoan zeuden emakume eta umeak hilda daude egun. Itsasontzia goizaldean hondoratu zen, zaintza protokoloa aktibatuta egon arren. Itsasontzitik 15 orduz laguntza eskatu zieten agintariei. Greziako hegoaldeko kostaldetik 80 kilometrora zeuden.

Alarm Phonek, Mediterraneoan arriskuan dauden errefuxiatuei laguntzeko erakunde independenteak, itsasontzitik ordu luzez bidali zituzten laguntza-eskaeren erregistroa erakutsi du. Alarm Phoneko boluntarioek Grezia, Italia eta Maltako agintariei ere pasa zieten laguntza eskaera. Greziako kostazainek eta Mugetako eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentziak (FRONT-EX) asteartean aurkitu zuten ontzia, baina ez ziren haiek laguntzera joan, berandu izan zen arte. Greziako kostazainek erantzukizunak saihestu dituzte, eta ohar baten bidez adierazi dute itsasontzikoek laguntza ukatu zutela Italiaraino jarraitu nahi izan zutelako.

Bizirik atera ziren 104 pertsonak –gehienak Siria, Afghanistan, Egipto eta Pakistandik etortitako gizonak– Grezia-

ko Kalamatako portura eraman zituzten. Desagertutako zenbait pertsonaren senide batzuk ere hara joan ziren. Horietako batzuek oztopo burokratikoak salatu dituzte beren senideen gorpuak hildakoen artean ote dauden egiaztatzeko. Gorpuak aberriatzea nahi dute, ez ditzaten Grezian lurperatu identifikatu gabe. Oraingo 78 gorpu aurkitu dituzte eta gainerako ehunka pertsonak itsasoan desagertuta jarraitzen dute.

Errefuxiatuentzako NBeren agentziaren arabera, baliteke hau bigarren hondoratze hilgarriena izatea. 2015eko apirilean, Libia eta Italia arteko bidean ontzi bat hondoratu zen eta, kalkuluen arabera, 1.100 pertsona hil ziren orduan.

Hau dena gertatu da hiru hilabete pasa ez direla beste ontzi bat Italiako Calabriako hondartzak batetik metro gutxira hondoratu denetik. 94 gorpu erreskatatu zituzten, 30 haur baino gehiago barne, eta horiez gain, beste dozenaka batzuk daude itsas hondotik atera gabe.

Hondoratzeek hitz egiten jarraitu dezakegu, laguntza behin eta berriz ukatzen dutenean? Eta Europar Batasunaren jarrera ofiziala baldin bada industria militarra diru gehiago bideratzea pertsonak mugetan edukitzeko eta Hegoaldeko herrialdeei are diru gehiago ordaintzea migratzeko eskubidea eragotz dezaten? ●



Irudian (Flightradar24 webgunetik hartua), maiatza bukaerako irudia: **22.000 hegaldi** martxan aldi berean, errekor berri bat gaindituz.

Egun bakarrean inoiz egindako hegaldi kopuru handienaren errekorra ere maiatza bukaeran gainditu genuen: **253.000 hegaldi**.

Hegazkina da **gehien kutsatzen duen** garraiobidea, baita berotegi efektua eragiten duten gas gehien isurtzen duena ere.

Ekaina hasieran eman genuen albisteak: jet pribatuek mugarik gabe jarraituko dute hegan Europar Batasunean.

## Heriotzak



### Jabier Salutregi

1998ra arte izan zen zuzendaria *Egin* egunkarian, Baltasar Garzonek itxeko agindua eman zuen arte. Zazpi urteko espetxealdia bete zuen Burgosko kartzelan, eta 2015ean aske geratu zen. 73 urterekin hil da Donostiako bere etxean.



### Izaskun Rekalde

45 urte zituela hil da, gaitz larri baten ondorioz. Azkeneko bi urteetan Pantailak Euskaraz mugimenduaren bozeramaile eta lehendakari izan da, euskarazko ikus-entzunezkoen beharra aldarrikatzen. Euskalgintzan lan handia egin zuen.



# EHUN URTEREN ONDOREN, ARMA KIMIKOEN MEHATXUAK DARRAI

Duela mende bat, 1923ko uztailan, espainiarrek lehen aldiz erabili zuten iperita edo ziape-gasa deiturikoa Arrifeko populazio zibilaren kontra. Aurretik, Lehen Mundu Gerrako potentziek soldaduen aurka ondo probatuta zuten arma kimikoa. Erabilera horren ondorioak gaur nabari dituzte minbizi moduan arrifitarrek. Eta europarrok ere laster sendi ditzakegu, Ipar Itsasoko urpean botata dauden milaka tona iperita-kapsula herdoildu hausteko zorian baitira.

 URKO APAOLAZA AVILA

**A**mesauro herria zerutik behatuz gero, meskita txiki baten abaroan pilatutako eraikin umilen itzalak bai-zik ez dizkizu erakutsiko Google Earth-ek. Tamsamane kabilan kokatua –Maroko iparraldeko Driouch probintzian, amazigak bizi diren eremuan–, badu historiara pasatzeko ohore latz bat ordea: espainiarrek populazio zibila lehen aldiz arma kimikoe-kin bonbardatu zuten han, interneten ego-tea merezi ere ez duen herri hartan, duela justu ehun urte, Arrifeko Gerraren baitan.

Lehen Mundu Gerraren ostean Europan erabiltzea debekatu arren, potentzia kolonizatzaileek “zibilizatu gabeko” herri askotan erabili zituzten substantzia toxikoak 1919tik aurrera –Italiarrek Libian eta Etio-pian, britainiarrek Afganistanen...-. Baina hegazkinak erabiliz herritar xumeei arma kimikoz eraso egiteko ideia zoragarria espainiarrei okurritu zitzaizen lehen aldiz.

1923ko uztailaren 13an Bristol F2b markako bi aireplano agertu ziren amesaurotarren buru gainean eta hainbat *X bonba* jaurti zituzten herritarren kontra. Kaleak eta zokoak iperita agente zitotoxikoarekin estali zituzten, ziape-gasa ere deitua bere kolore arreagatik.

---

## Arrifeko Errepublika Independente sortu berria zapaltzeko metodo oro txalotu zen Madrildik, tartean arma kimikoen erabilera

Kanpaina krudel eta esterminatzaile baten hasiera baizik ez zen izan, 1927 urtera arte terrorea zabaldu zuena gerra kolonial haren erretagoardian.

### INDIGENA TRAIKORE HORIEK...

Arrifeko lurraldea Espainiako protektoratu barruan zegoen XX. mende hasieratik eta hango herriak etengabe matxinatu ziren, okupazioari aurre egiteko. Abd el Krimek gidatutako gerrillariak 1921ean Annualen espainiar armadako

milaka soldadu kalitu ondoren, koska bat gora egin zuen gerrak.

Arrifeko Errepublika Independente sortu berria zapaltzeko metodo oro txalotu zen Madrildik, tartean arma kimikoak: “Indigena horien kontra gas itogarriak erabiltzearen oso kontrarioa izan naiz beti, baina egin dutena eginda, jokabide traidore eta zitalaren ondoren, gozamen handiz erabili behar ditut”. Hala esan zuen gaztelaniaz Damaso Berenguer Marokoko goi komisarioak, eta halaxe itzuli euskarara Joseba Sarrionandiak *Moroak gara behe laino artean?* (Pamiela, 2010) libururako.

Sarrionandiak bere lanean dioenez, “armamentu kimikoa bultzatzeko motiboa, Annualetako derrota ondoren, ejertzito espainolaren ezintasuna eta mendeku gogoa izan zen”. *X bonba* horiei beste izen batzuk ere jarri zizkieten: *C-1* izenekoak 50 kilo iperita zituen, *C2*-k 10 kilo eta *C5*-ek 20 kilo. Batez ere azken hori erabili zuten. Aldiz, *C3* lehegailuak fosgenoa zeraman; *C4*-k kloropikrina...

Eta horrela bonbardatu zituzten gupidagabe, ez bakarrik gerrillarien us-tezko sator zuloak, baita Beni Urriagel

kabila eta barrualdeko beste herri ama-  
zig ugari ere.

Hori ez dio euskal idazleak soilik,  
baita Espainiako Lurreko Armadaren  
*Ejército* aldizkariak ere: “1925etik arma  
horien erabilera hobetu (sic) zen. Gaez  
bonbardatzen hasi ziren, haize gutxiago  
zebilelako eta freskurak iperitari uzten  
ziolako denbora gehiagoz egoten, beha-  
rrezkoak ziren iraupen eta kontzentra-  
zioa lortzeko”, idatzi du berriki aldizkari  
horretan Fernando Villena Espainiako  
Defentsa Ministerioko diplomatiko eta  
aholkulariak.

1925ean, kostaldea dagoen Al-Ho-  
ceima herrian milaka soldadu espainiar  
lehorreratu ziren, eta buru José Sanjurjo  
jeneral iruindar kolpista zuten –hiriari  
Villa Sanjurjo ere deitu izan zioten-. Pa-  
raje horiek ere gogoz betundu zituzten  
gas hilgarriarekin. Denak balio zuen ma-  
txinaturiko basati haiei larrua konpon-  
du eta lotsak gainetik kentzeko; Paulo

Yanzik ondo azaldu zuen orduko giroa  
“Afrikako Gerrarenak” bertso-sortan:

*Galdu lehengo terrenuak,  
armamentu modernuak,  
guztiak gure reinuak;  
bai eta ere galdu dituzte  
besten seme tiernuak;  
ai zer lotsa gobiernuak,  
ematia rifeñuak  
gure tropari frenuak!*

Jakina, espainiar erreakzionarioak  
beti saiatu izan dira egindako sarraskia-  
ri garrantzia kentzen. Baina Villenak be-  
rak zifra ikaragarriak ematen ditu: soilik  
Melillako fabrian 30.000 eta 55.000  
tona iperita sortu ziren, “horrek eman-  
go luke 4.000 eta 7.000 C5 lehergailu  
artean egiteko”. Horrez gain, britainia-  
rrei erositako fosgenozko 500 bomba ere  
bazituztela dio armadako aholkulariak.

Hasiera batean Lehen Mundu Gerran

britainiarrei eta frantziarrei geratutako  
soberakinak erabili bazituzten ere, es-  
painiarrek berehala jarri zuten martxan  
arma kimikoak sortzeko programa. Isil-  
tasun garai luze baten ostean, 1990eko  
hamarkadan Rudibert Kunz eta Rolf Die-  
ter-Müller kazetari alemanek argitara  
eman zuten *Giftgas gegen Abd El Krim*  
 (“Gas pozoitsua Abd El Krimen kontra”)  
ikerlana.


Froga ugariarekin erakutsi zuten Ale-  
maniak ezkutuan lagundu ziola Alfonso  
XIII.a espainiar monarkari iperita sor-  
tzeko fabrikak muntatzen, bai Madri-  
len –La Marañosa lantegi militarrean,  
egun oraindik martxan dagoena–, baita  
Melillan ere, nahiz eta 1919ko Versai-  
llesko Itunak arma horiek produzitzea  
debekatzen zuen.

Baina arma kimikoak beste toki ba-  
tzuetan ere produzitu zirela uste da. Eta  
Euskal Herriko armagintza industria ho-  
rretan sartzea ez dio inori askorik harri-

## KOLONIALISMOA

Espainiako armadak Arrifeko jendea ere  
erabili zuen gerrarako. Irudian, bertako polizia  
edo “mehala”-ren eskudroi bat 1924an.

ESPAINIAKO DEFENSA MINISTERIOA





tuko noski –SAPA, Sener eta enparauek gaurko gerretarako tankeak eta droneak produzitzen ikusteak inor harritzen ez duen bezalaxe–. Sarrionandiak dioenez, zerbitzu sekretu ingelesan arabera Talleres de Guernica SA lantegian egin ziren halakoak, eta dirudienez iperitazko jaurtigaiantzako karkasak ekoitzi ziren bertan.

## RABATEKO ONKOLOGIKOAN AMAZIGAK GEHIENGO

Mohamedek etxe azpiko sotoko burdinazko atea ireki eta karkasa erdoildu bat erakusten du: “Hegazkin batek bonbak bota zituen hemen, eta gero armazoi hau erori zen gure etxera”. Tarik El Idrissiri ari zaio hizketan, Javier Radarekin batera *Arrhash!* dokumentalaren egilea. Arrifren espainiarrek arma kimikoekin utzitako orbaina ulertzeko ezinbesteko filma da, 2010ean estreinatua eta Argia.eus-eko multimedia kanalean ikusgai daukazuna.

Mohamed amaren sabelean zegoen bonbardaketa gertatu zenean: “Amak eztula egin zuen hil artean, eta arrebak itsu geratu ziren”, dio kamerari albotik begira. Anaia bat hortik gutxira hil zitzaion, “pozoitutako ura iturritik edan eta ziplo erori zen”. Iperita eraikinetako horma guztietara itsatsita geratu zen eta ukituz gero larruazala erretzen zuen. Artalde guztia ere itsu geratu zela dio Mohamedek, eta lurra emankorra izateari utzi ziola: “Hor kaktus bat genuen baina usteldu zen, almendrak ere landatu genituen eta ezer ere ez, usteltzen dira...”. Usainaz akordatzan da, iperita-

## Rabateko ospitale onkologikoan minbiziarekin ingresatzen dituzten haurren %50 eta helduen %80 Arrif eskualdeko amazigak dira. Adituek ziurtatu dute arma kimiko horiek “mutagenikoak” direla, hau da, kalteak ondorengoek ere jasaten dituzte

ren kolore horixkaz... “Pozioa deitzen zioten, amazigeraz *arrhash*”.

Dokumentalean, Sebastian Balfour eta Maria Rosa Madariaga historialariak mintzo dira. Azkeneko honen esanetan, eztabaidaezina da iperitak minbizia sortzen duela, baina ezinezkoa da jakitea arma kimikoen ondorioz zenbat jende hil den Arrifren. Sekula ez zen gaixotuen jarraipenik egin, eta arrifarrak zapaltzen iaioa izan den Marokoko Gobernuak ez du horretan lagundu –1958an matxinatu zirenean, napalmez eta fosforoz eraso zituen Hassan II.ak–.

Datu objektibo bakarra da Rabateko ospitale onkologikoan minbiziarekin ingresatzen dituzten haurren %50 eta helduen %80 Arrif eskualdekoak direla. Amazigen Munduko Asanbladako (AMA) ohorezko presidente Mimoum Charki doktoreak azaldu duenez, genetista japoniar italiar eta estatubatuarrek ziurtatu dute arma kimiko horiek “mutagenikoak” direla, hau da, kalteak biktimen ondorengoek ere jasaten dituztela. Eta eragin psikologikoez hobe ez hitz egin.

AMAK sarritan eskatu dio Espainiako Estatuari aitortu eta erreparatu dezala egindakoa. Azkeneko aldiz 2020an, zuzenean Felipe VI.a Espainiako erregeari gutuna igorrita –erakundearen webgunean paratutako prentsa dossierrean irakurri daiteke Zarzuelara bidalitako idatzia–, baina ez du maiestate txit gorenaren hitzerdi bat ere jaso.


ERCK ere enegarren aldiz eraman zuen gaia Madrilgo kongresura 2018an, alferrik, Espainiako Gobernuko orduko ministro Josep Borrellek “zauriak ixteko ordua da” esaldi zozo batekin erantzun zion. Zauriak ixteko, lehenik pozoia atara behar da.

## BADAKIZU GERRA HANDIKO IPERITA NON DAGOEN?

Arrifeko Amesauron, Tauriten edo Al-Hoceiman herritarren kontra bezala, aurretik Lehen Mundu Gerran ere erabili ziren arma kimikoak soldaduen kontra Europan: Ypresen, Loosen, Wiltejen... Gerra ura izan zen kloroaren, fosgenoaren eta iperitaren laborategi handiena,



**AIREPLANOAK.** Arrifeko gerran espainiarrek aireplanoak hasieratik erabili zituzten eta bonbak eskuz jaurtitzeko erabili zituzten haieratik (eskuineko 1913ko irudian ikus litekeen bezala). Hortik urte batzuetara bomba kimikoak hasi ziren jaurtitzeko. Ezkerrean, 1922ko Marokoko espainiar protektoratuaren mapa, Arrifeko kabilekin.



**URPEAN.** Lehen eta Bigarren Gerren ondoren Europako potentziek itsasoan hondoratu zituzten milaka tona arma kimiko. Orain kapsulak herdoiltzen hasi dira eta kutsadura askatu dezakete. Ezkerrean, Oskar batzordeak arma kimiko eta konbentzionalen kokaguneekin egindako mapetako bat.

eta hainbaten arabera 90.000 hildako eragin zituen.

Bigarren Mundu Gerraren ostean arma kimikoen soberakinak itsasora botatzea erabaki zuten gatazka horietan parte hartu zuten potentzia askok, "irtenbide merkeena zelako". Hala azaltzen du *Menaces en mers du Nord* ("Mehatxua Ipar itsasoetan") dokumentalak, Jacques Loeuillek 2018an zuzendua eta Youtuben ikus daitekeena. Honen arabera, denera hiru mila milioi tona lehergailu kimiko daude urperatuta Ipar Itsasoan eta Baltikoan.

Batzuetan itsasontziak hondoratu zituzten lehergailuez gainezka. Beste batzuetan ziape-gasaz betetako kapsulak kostaldetik oso gertu jaurti zituzten itsasontzietatik, arrapala batzuk erabilia.

Belgikako Knokke hiriko hondartzetan, esaterako, milaka tona daude metro batetako sakoneran.

Baina kasu askotan ezin da jakin zehazki arma kimikoak non dauden. Frantziako Estatuan gune horiek "sekretu militar" izendatu dituzte eta artxiboak itxita daude. Noiz edo noiz arma kimikoen kokagune berriak aurkitzen dituzte arrantzaleek, istripuak gertatu direlako. Atlantikoko itsas ingurumena babesteko Oskar Batzordeak egindako txosten batean arma konbentzional eta kimikoen depositu jakinen mapak argitaratu zituen, baita aurkikuntza berriagoenak ere. Irakurlea kezkatu beharko litzateke ikusita "zabortegi" horietako batzuk zein gertu ditugun.

Baina kezkarriena da kutsadura zabaltzen hasi daitekeela laster. Adituen esanetan, 80 edo 100 urteren buruan kapsulak herdoildu egin dira eta korrosioaren ondorioz barruko iperita askatzen hasi dira. Moskuko Ozeanografia Institutuaren esanetan nahikoa litzateke substantzien 1/6 askatzea, Baltikoko itsaspeko bitzita oro desagerarazteko. Gainera, elikadura katean ere eragin dezake kutsadurak, animaliak gai kimiko horiek metabolizatzen ari direlako.

"Hau benetako erloju bonba bat da", dio Thomas Lang itsas biologoak dokumentalean. Duela ehun urte sarraski militarra eragin zuten lehergailuek, orain ingurumen sarraskia sortu dezakete. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)





# Laura Penagos

AKTORE KOLONBIAR EUSKALDUNA



## EMAKUME ARRAZIALIZATUA ETA EUSKALDUNA IZATEA EXOTIKOA DA, HORREK NEKATZEN NAU, ETA ARRAZISTA ERE BADA



Ez da ohikoa Kolonbiatik etortzea, euskara ikastea eta antzerkitik bizitzen tematzea. Ez da ohikoa soineko gorri ikusgarria Larunbe (Nafarroa) herri txikiko eliza gotikoaren hormatzarrekin konbinatzea. Eta ez da ohikoa periferiaren periferiakoa izanda, horren baikorra izatea.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

### **Nolakoak izan ziren zure lehen urratsak antzerkigintzan?**

Ni Suescan jaio eta hazi nintzen, herri txiki bat Cundinamarca departamentuan. Bogotan antzerkigintza ikasi nuen bertako Escuela de Teatro Libre-n. Oso eskola ona da. Lau urteren ondoren oso gazte graduatu eta Cartagenako Arte Ederretako unibertsitateara joan nintzen aktore teknika eta eszenarako ahots klaseak ematera. Urtebete geroago Sabanaoko Unibertsitateko Komunikazio eta Kazetaritza Fakultatean jendaurrean hitz egiteko tekniken inguruko klaseak eman nituen, eta bitartean hainbat muntaiatan hartu nuen parte.

### **Iruñera nola etorri zinen?**

Nerbio krisi bat izan nuen antzerkiaren-

gatik. 2006an muntaia profesional batean nengoen, Bertol Brechten *Madre Coraje* egiten ari ginen, eta zuzendariaren laguntzailea izateaz gain, aktorea ere banintzen. Presioa ikaragarria zen eta izu-atake bat izan nuen. Gainera, muntaia horretan misoginia asko zegoen zuzendariaren partetik. Gaur egun ere argi ikusten dira antzerkigintzan, oro har, dauden bertikaltasuna eta matxismoa. Oraindik hori existitzen da. Medikiak esan zidan ene osasun mentala eta antzerkiaren artean aukeratu beharko nuela. Izugarri beldurtu nintzen, nire familiar hainbat aurrekari izan ditugulako amaren partez. Izan ere, nire amona psikiatriko batean egon zen gaztetan. Antzerkia uztea oso erabaki gogorra izan zen, baina hori zen bide bakarra.

Bogota utzi eta Suescara itzuli nintzen, nire ahizpak zabaldu berria zuen ostatuan lan egitera. Suesca oso herri turistikoa eta ezaguna da. Jende asko eskalatzera, bizikletaz ibiltzera eta raftinga egitera joaten da. 2.800 metroko altueran dago eta paisaiak antza handia du Euskal Herriko txoko askorekin.

Suescan nengoela, eskalatzera etorri ziren bi euskaldun ezagutu nituen. Haien artean euskaraz hitz egiten zuten eta horrek arreta eman zidan. Galdetu nien ea zer hizkuntza zen hori eta hasi ginen hizketan. Gero haietako batekin harreman bat hasi nuen eta handik tar-te batera ezkondu ginen. Kolonbian bi urte bizi ondoren, Iruñera etortzea erabaki genuen.





# Laura Penagos Rodriguez

SUESCA, KOLONBIA, 1983



Bogotako Teatro Libre Eskolan graduatu ondoren, antzerki-irakaskuntzan aritu zen Kolonbiako Cartagena de Indiaseko Arte Ederretako Unibertsitatean lehenbizi eta Sabanako Unibertsitatean gero. Bitartean, hainbat antzezlanetan parte hartzeaz gain, Workcenter Jerzy Grotowski eta Thomas Richards taldearekin trebakuntza saioak egin zituen Bartzelonan eta Italian. 2008an Nafarroara etorri zen bizitzera eta euskara ikasi zuen. Gorputz eta ahots formazioak ematen ditu.

## Nolako izan da euskararekiko zure harremana?

Nire aitak gaztetan jesuiten apaiztegi batean ikasi zuen. Han zeuden apaiz euskaldunek euskaraz egiten zuten haien artean eta pilotan aritzen ziren. Euskal kultura oso presente zegoen han eta horregatik gure etxean betidanik izan dugu euskararen berri. Bestalde, historia liburuetan Nafarroako Erresumaren historiari buruzko atal bat zegoen eta hori interes handiarekin ikasi nuen txikitatik. Iruñea Kolonbiako Pamplona hiriarekin senidetuta dago eta beti izan dut horren inguruko jakin-mina. Nire bikotekidearekin – orain bikotekide ohia – hasi nintzen hitz batzuk ikasten eta 2008an, hona iritsi ginenean, izena eman nuen euskaltegian.

Batzuek esaten zidaten ez ote zen goizegi horretan sartzeko, esanez bezala kolonbiarra izanik zailagoa izango nuela, eta berehala nekatu eta frustratu egingo nintzela. Asmo txarrik gabe esaten zidaten, ene ustez. Hala ere, ni burugogorra eta erronkazalea naiz, eta ikasi nahi nuela argi nuen. Lehen urtea oso gogorra izan zen eta askotan negar egiten nuen.

Hizkuntza bat ikastea oso zaila da. Lana, dedikazioa eta maitasuna eskatzen dizkizu. Ongi ikasteko zuk zeuk ere aukerak sortu behar dituzu ahalik eta gehien erabiltzeko hizkuntza hori. Hori da nik beti egin dudana. Aukerarik badut, “egun on” edo “kai-xo, zer moduz?” esaten dut.

Ikasketa prozesuan gorabeherak izan ditut eta hainbatetan utzi eta berriro hartu dut. Nik zorzea izan dut, Haur Hezkuntza ikasi nuen Iruñean eta hurrekin asko ikasi dudalako. Ikasterakoan oso garrantzitsuak dira laguntasun eta maitasun harremanak. Ohean ere hizkuntza ikasten da!

Nik ahalegin handia egin dut, baita ekonomikoa ere. Euskara ikastea doakoa izan beharko litzateke.

## Nola sentitzen zara orain Euskal Herrian?

Hamabost urte igaro ondoren hau nire herria da. Kolonbiarra naiz, jakina, eta beti izango naiz, baina orain hemengo sentitzen naiz, hau delako bizi naizen tokia. Hau ere nire etxea da.

Euskal Herriak asko eman dit zentzu askotan.

Izugarri maite ditut lurralde hau, euskara eta euskal kultura. Izugarria iruditzen zait oztopo eta zigor guttien gainetik hizkuntzari eusteko herri honek izan duen ausardia historikoa, batez ere hemen Nafarroan. Hori oso baliotsua da eta asko esaten du hemengo jendeaz. Beti emango diot bali handia horri.

## Euskara orain zure lan tresna da

Bai. Niri euskarak antzerkia berriz egiteko aukera eman dit eta hori da ekarpen zoragarrienetako bat. Profesionalki hemen ez dut gaztelaniaz lan egiteko aukerarik izan. Euskaraz, aldiz, Artedrama eta Ander Lipus handiarekin lan egiteko aukera izan nuen, eta urte eta erdiko bira egin genuen Euskal Herrian barrena. Herri eta jende piloia ezagutzeko aukera eman dit horrek. Antzezlan hori nire lan pertsonalena izan da, niretzat oso sakona den galdera batetik abiatzen delako: zer esan nahi duen euskaldun izatea kanpotarra izanik.

## Orain Behi jasa muntaian zabilta.



**Oso zaila da periferiako aktorea izatea, eta ni periferiaren periferiako naiz: aktorea, emakumea, migratzailea eta erdi indigena”**

Boga-boga Produksioak-eko Adriana Salvo tallarrak deitu zidan. Ikusi ninduen *Atzerrian lurra garratz-en* eta deitu ninduen lan honetan parte hartzeko berarekin eta Iñigo Aranbarriarekin. Oso lan interesgarria da. Genero indarkeriaz hitz egiten du eta

gizon bera maite duten bi emakumeren arteko harremana ikusten da, lehia alde batetik, eta ahizpatasuna bestetik.

Beti egongo naiz oso eskertuta lanerako deitzen didaten pertsonekin. Nahiz eta euskalduna izan, ez naiz hemengo eta hori oso presente dago nire jardueraren profesionallean.

## Horrek mugatzen zaitu?

Zentzu askotan bai. Orain saiatzen ari naiz zerbait egiten zinema eta telebistan, eta nire aktore-agentek esaten zidan nire profila beti izango dela prostitutarena, narkotrafikatzaile baten emaztearena, garbitzailearena edo zaharren zaintzailearena. Ni oso kontziente naiz telebistan edo zine-

man, non hainbeste estereotipo nagusi diren, nire paperak halakoak izango direla. Lanerako deitzekotan, paper horiek egokituko zaizkit, baina gaur egun horrek jada ez dit axola, badakidalako joko horretan sartu nahi badut arau horiek onartu behar ditudala.

Zorionez, antzerkia horretatik kanpo gelditzen da eta beste lengoaia batzuk bilatzen ditu, beste kodeak, gauzak beste toki batetik kontatzea. Antzerkia nire babeslekua da.

### Orain zure hirugarren lana aurkeztu berri duzu, ezta?

*Putaren bakarrizketa eroetxean.* Franca Rame eta Dario Foren lan hau oso ongi idatzita dago eta benetako plazera da horrekin lan egitea.

Aspalditik ezagutzen nuen testua eta sentitzen nuen muntatu behar nuela, nire bizitzako alderdi batzuetan harekin oso identifikatuta sentitzen naizelako. Osasun mentalaren inguruan mintzo da eta gai honek sakonki hunkitzen nau. Bizitzan bizpahiru izu-atake izan ditut eta haietan pentsatu dut burua galtzera iritsi nintekeela. Beti oso emakume askea izan naiz. Jaio nintzen herri txiki eta kontserbadore batean, eta beti nengoen kallean, antzerkia egiten. Nire lagunek beti esan didate erotuta nengoela, eta horrek markatu nau. Bestalde, bere gorputzaren gainean erabakiak hartzen dituen eta bizitza nola bizi erabakitzen duen emakumeaz epaiketa sozial gogorra egin ohi da: putatzat hartzen da.

Lan honetan elkartzen diren gai ho-



riek nirekin zerikusi handia dute. Are gehiago hemen naizenetik. Hemen emakume kanpotarra naiz eta prostituzioa oso lotuta dago kanpotik datozen emakumeekin. Oso gai konplexua eta sakona da, eta oraindik ez dakigu horri sozialki nola aurre egin.

Abusu ugari eta mafia asko daude, baina badira ere emakume asko horretan aritzea erabaki dutenak bizimodu duin bat izan ahal izateko. Oso gai delikatua da, eta legalizatuta ez dagoen esplotazio modu bat. Badira lan asko pertsonak esplotatzen dituztenak, baina

lege barruan daudenez ez da ezer gertatzen. Prostituitzeko modu asko dago, baina gizarte genitalizatu batean bizi garenez, soilik prostituzio sexuala jotzen dugu prostituziotzat.

### Lan hau mugitzen hasiz zarete?

Jendaurrean aurkeztu genuen, baina orain Ainara Gurrutxaga zuzendariarekin induko dugu Errenterian, Niessen antzokian eginen dugun egonaldian.

Hasi gara muntaia mugitzen, baina zaila da saltzea, are gehiago Nafarroan egindako euskarazko antzezlan bat izanik. Oso zaila da eta ez dakit zergatik. Une honetan Bilbon da mugimendurik handiena zinema eta telebista egiteko. Dirua gaur egun han dago.

Niri askotan esaten didate ea zergatik biz naizen Nafarroan, zer egiten dudan hemen Bilbon edo Donostian bizitzeko aukera izanda. Muga bat balego bezala esaten dute, eta niri pena eta amorrua ematen dit.

Iñigo Aranbarri aktorea –eta nire lankidea *Behi jasan*– orain Iruñean bizi da, eta berak eta Oier Zuñiga aktore iruindarrak esaten dute Nafarroako aktoreok oso zaila dugula produkzio handietan parte hartu ahal izatea. Oso zaila da periferiako aktorea izatea, eta ni periferiaren periferiakoa naiz: aktorea, emakumea, migratzailea eta erdi indigena.

### Zaila da antzerkiaren bizitzea, ezta?

Prekaritatea da aktore askoren bizimodua. Nik aukera izan nuen urte eta erdi batez hilero kobratzeko Artedramarekin

**apurtu hormie,  
astinddu  
zisheteronormie!**

**Ekainak 28**  
Sexu Askapenaren  
Nazioarteko Eguna  
**2023**

**Aulestiko Udala**





egon nintzanean. Hura opari moduko bat izan zen, baina Euskal Herrian oso konpainia gutxi funtzionatzen dute horrela. Izugarri miresten ditut.

### Zer esanen zenioke kanpotik etorritako jendeari?

Nik uste dut garrantzitsua dela bizi zaren tokiarekin konektatzea. Ezin zara bizi zaren errealitatetik kanpo gelditu. Bizi zaren tokiko kultura bizitzea eta toki horretan gertatzen dena ulertzea ezinbestekoa da, nire ustez, eta horregatik niretzat beti oso garrantzitsua izan da euskara ikastea. Horrek eraman nau mundua ulertzera eta beste begi batzuekin ikustera. Herri hau eta bere borroka historikoak ulertzen laguntzen dit. Lehengo gatazkak eta gaur egunekoak ere bai. Adibidez, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadila nahi du

jendarteak? Bai ala ez, eta zergatik?

Oso garrantzitsua da modu batez edo bestez Euskal Herrira bizitzera etortzea erabaki dugun pertsonok hemen gertatzen denaren kontzientzia hartzea. Jende askok esaten du zaila dela, egun osoan lanean ari direlako; bai noski, baina ulertu behar dugu testuinguru batera iristen garela. Ezin dugu bazterrean utzi hemen ere aldarrikapen sozialak eta kulturalak badirela, gure herrietan bezala. Gutxieneko bat da ingurura begiratzea, eta galdetzea non nagoen eta zer gertatzen den hemen. Nik uler dezaket pertsona asko modu oso prekarioran iristen direla. Alde horretatik, ulertzen dut ni pribilegiaduna izan naitzela, hemengo gizon batekin ezkondu, paperak berehala lortu nituelako. Nik ez dut inoiz beldurrik sentitu izan kalera ateratzeko, lege barruan egon naizela-

ko, baina nire ustez, edozein egoeratan egonda ere, kontzientzia sozial eta politikoa oso garrantzitsua da bizitzarako.

Gero eta jatorri anitzagoetako jendea dago D ereduan Nafarroan eta horrek pozten nau. Hala ere, batzuetan ez nago ados zabaltzen den mezuarekin, oso paternalista iruditzen zait. Bestalde, bada sinesmen bat asko zabaltzen ari dena eta oso kezagarria dena: jende askok pentsatzen du euskara galduko dela kanpoko jende asko etorri delako eta horiek euskaraz ez dakitelako. Barkatu, eta hemengo jendea zer? Hemen mendeak daramatzaten herritarrek eta euskara ez dakitenek ez dute erantzukizunik? Hori oso jarrera arrazista da.

Edozein modutan, euskara salbatzeko lehen pausoa da hizkuntza ofiziala izatea lurralde guztietan. Hori da bide bakarra. Ez da gaitz guztietarako soluziobidea, baina ezinbestekoa da. Ni ez naiz erakunde oso laguna, baina hemen Nafarroan aurrerapauso handia litzateke.

### Desberdin tratatua sentitzen zara?

Emakume arrazializatua eta euskalduna zarenean sortzen da exotismo moduko bat, eta horrek ere nekatzen nau, arrazakeria mota bat delako. Arina, baina arrazakeria.

Horrekin batera sentitzen dut beti ikusten nautela migratzailea bezala, baina migratzea prozesu bat da. Inor ez da betirako migratzaile. Hori gezurra da. Nik migratu egin nuen, baina hamabost urte daramatzat hemen. Nahi duzun bezala deitu, baina ez migratzailea, migratzailea mugimenduan den pertsona delako.

Oso eskertua nago jendeak euskara ikastearen meritua aitortzen didalako, baina sentitzen dut niretzat gauza naturala dela, Euskal Herrian euskaraz hitz egitea naturala delako. ●

# E28: ekainak 28

## Askapen afektibo-sexualerako Nazioarteko Eguna



LGTBIQ+ fobia ez da ongi etorria





## Naziogintza eta politika Euskal Herrian



KARMELO LANDA  
HISTORIALARIA

**Z**er galdu zaigu euskaldunoi Espainian? Eta Frantzian? Parte hartu behar dugu haien politikan, hauteskundeetan, instituzioetan? Eta horrela bada, zer baldintza eta helburu lehenetsita?

Euskal Herria herria da, baina nazioa edo nazio-proiektua ere bai (une honetan beste bi naziotasun inposatu asimilatzaile jasan eta “gure egin” behar ditugun arren), eta estatu propioa izan beharra daukagu horretarako. Naziogintza behar dugu, ezinbestean. Europa zahar honetan, euskaldunon herria da zaharrenetarikoa eta, zentzu askotan, interesgarrienetakoa ere bai, eta ez iraganari begira soilik, baita aurrera begira ere.

Etorkizuna hobetzera begira bizi garen herritar aurrerakoiak gara gehienak. Baina bide propioa zabaldu behar dugu, ez beste bi makroestatu asimilatzaile horien mende subsumiturik nekez bizi, orain gauden eran.

Euskaldunon herriak iraun eta nazio demokratikoaren egitura lor dezan, euskara eta euskal kultura polisistema osoa antolatuta behar ditugu. Hizkuntza propioa nagusi lurralde osoan; hezkuntza sistema beregaina; komunikazio sistema euskalduna, munduari irekia; instituzio legegile, exekutibo eta judizial demokratiko beregainak; gizarte antolaketa justu berdinzalea; nazioarteko komunitatearen onespina eta errespetua.

Euskaldunok, katalanak bezala, saiatu gara, bakoitza gure bidetik, independentziara eta Estatu propioa antolatuzera

Hurrengo  
hauteskundeetan  
berriz ere  
EH Bildu indartu?  
Egokia izan daiteke,  
baina naziogintzaren  
zerbitzura  
jartzen bada

jauzia egiten. Saio serio, larri eta indartsuak izan dira bionak. Ez dugu lortu, arrazoi desberdinak medio, baina batez ere gainean ditugun Estatu bi horiek, eta modu nabarmenean Estatu espainiarrak, frankismoan zein *trantsizioaren estatu* deituan, era guztietako bortxa, manipulazioa, indarra, etnozidua, debekua eta errepresioa darabiltelako gure aurka. Euskal Herriari edota Kataluniari bidea itxi nahi dietenean, ez dago Estatu horien aldetik demokraziaren trazarik.

Zer egin orduan? Nola hautsi kristalezko sabaia edo burdinazko hesia? Aldebikotasunik ezin pentsatu ere egin, gure helburu guztiz legitimo eta ezinbestekoak horiek izanda eta Estatu den modukoa izanda, PSOEren edota PPre

gubernua izan berdin dio, kontu honetarako.

Kontu printzipal honetan Espainia demokratizara eramatea ameskeria kaltegarria baino ez da, ikusten dugunez. Estatu hori monarkia hierarkizatu aldeazina da, eta sistema instituzional eta mediatiko osoa bere zerbitzura dauka, sistema politikoa barne. Alderdi nagusiak, PP eta PSOE, monarkia horren zerbitzari zintzoak dira, eta haratago sortzen diren alderdiak, zentroan zein nazio periferikoetan, sistema beraren legetara makurrarazten dituzte. Ikusi azken adibideak: Katalunian, ERC eta horren bidea, “berdinen arteko elkarrizketa” proposametik, erreferendum berri adostua eta amnistia eta abarretik... herritar katalanen konfiantza galdu eta horrekin 300.000 boto ere galtzera. Ikusi Podemos, udaberriko errebolta haietatik PSOEren gobernuaren partaide izan eta PSOEek berak, operazio programatuan, beste “ezker” asimilatuagoaz ordezkatzera. Ikusi gurean EH Bilduren esperientzia gordina, kontrapartidarik gabeko laguntzak eskaini, eta etxe barruan indar “gehiegi” hartzen ari dela iruditu zaienean, etorkizun aukera guztietatik apartatu eta baztertu, kriminalizazio berriak asmatuta.

Orduan, hurrengo hauteskundeetan berriz ere EH Bildu indartu? Egokia izan daiteke, baina naziogintza/herrigintzaren zerbitzura jartzen bada, ez Madrilekiko “jarraitasuna” lehenetsita.


Egingo ahal dugu Naziogintza oraingoan! ●



# Erromantiko jarrai dezagun



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Ideologiak, “idealaren eritasun kolektiboak” izan daitezke, dio François Duparc-ek “Vie et mort des idéologies” (Ideologiaren bizi eta herioa) artikuluan (*Le journal des psychologues*, 2009/02, 265. zbk.). Psikiatra horren ustez, ideologiak onuragarriak izan daitezke jendarte edo familia batean, kohesioa eta elkartasuna sortzeko, norbanakoen psikismoa egituratzeko eta, hondarrean, bizitzeko edo bizirauteko. Hala ere, norberarentzat eta gizarte osoarentzat kaltegarriak izan daitezke ukatzen dutelarik denborak dakarren aldakortasun eta halabeharra, eta modu totalitarioan aplikatuak direlarik, aniztasuna gaitzesten dutelarik. Ideologia garaikideen artean, François Duparc-ek izendatzen ditu, besteak beste, komunikazio laster eta erakargarria, kontsumismoa, indibidualismoa (gizabanakoa bakartasun sozialera bidera dezakeen ustezko autonomia edo independentzia), kapitalismo handia.

Ideologia zorrotza ez, ideal loratua izan beharko genuke xede, nire ustez, eta ideologiak, ideal horri buruz bide egiteko tresna laguntzailatzat soilik hartu beharko genituzke, hausnartzeko marko akuilatzailetzat bakarrik, beste-

rik gabe. Hortaz, pentsatzen dut ideal bera helburu izan dezaketela ideologia ezberdinek, eta balio duela ideologia diferenteak baina ideal bera sostengatzen dituzten eztabaidak sustatzea.

Hori egin dute Robert Sayre eta Michael Löwy-k, frantsesez idatzitako *Romantisme anticapitaliste et nature* (*Erromantizismo antikapitalista eta izadia*) saiakeran (Payot, Paris, 2022). Sayre estatubatuarra Parisko unibertsitate irakasle emeritua da, eta Löwy soziologo eta filosofo marxista eta ekosozialista franko-brasildarra da. Erromantizismo anglo-saxoiari buruz ikuspegi berria proposatzen dute. Haien ustez, erromantizismoa ez da XIX. mendeko mugimendua: zinezko mundu ikuskera da. Autoreen aburuz, erromantizismoa da zibilizazio kapitalistaren eta horrek planetari eragin kalte izugarrien kontrako protesta kulturala, XVIII. mendean hasi eta oraindik dirauena. Sei figura arrunt desberdinen lanak aztertzen dituzte liburuan: W. Bartram botanista bidaiariarena (1739-1823), T. Cole-rena (1801-1848), W. Morris-ena (1834-1896), W. Benjamin-ena (1892-1940), R. Williams-ena (1921-1988), N. Klein-ena (1970-).

Obra horretan agertzen den gogotaren arabera, erromantizismoa oinarritua da, garaiz garai, neurritz goitiko “aurrerapenaren” aurkako jazarraldian eta kapitalismo handiak sortzen dituen naturaren kontrako mehatxuen arranguran, edozein izanda artisten ideologia politiko-moralak. Guziek amankomunean dutena da ideal bat, gutariko baikoitza aitzinera baikorki bultzako duen utopia, hau da, Lurrari eta biziari buruzko begirunea, sistemak hazten dituen eritasunezko pasio triste eta ingurumen-zapaltzailei bizkarra emanda.

Jakina da erromantizismoak iragana eta nostalgia goraiatzaren dituela. Sayre eta Löwyren ustez, berriaz, aukeratu sei figura erromantikoei irakasten digute galtzea itxaropen bihurtu behar dela uros irauteko, munduarekin harmonian. Ondorio hori du ateratzen Evelyne Pieiller kritikari literarioak hilabete honetako *Le Monde Diplomatique* zenbakian, eta hori nuke nik ere bai gogoan atxikiko. Ez gaitezen gertatuaren doluan egon, ez eta modernitateak piztu hersturetan etsipenez urtu, baina delako erromantikoak bezala, ideologietatik at, helgakizkion bizia eta izadia zainduko dituen idealari! ●

## Beste orri zuri bat



MAIALEN ARTEAGA  
KAZETARIA

**O**rri zuri bat karakterez bete behar dudanean egunak ematen ditut hainbat gairen inguruan hausnartzen, ingurukoekin hainbat titular partekatzen, neure burutik kanpoko termometroa nola dagoen neurtzeko. Pentsatzen ditudanak kanpotik ikusteko aukera ematen dit, imajina ezin nitzakeen gaitan arramazka egiteko aukera. Baina, batzuetan, gai batzuk buruan giltzapetzen zaizkit. Eltxoak kristalezko botilan itxita bezala ibiltzen zaizkit pentsamendu berberak bueltaka, buruko bi hemisferioetako paretetan kolpatuz. Batzuentzat errepikakorrek diruditen gaiez hitz egitea besterik ez dut orduan. Bai, indarkeria matxistaz hitz egitera nator berriro. Ze astuna, ezta?

Hilabete hauetako gertakariak bueltaka ditut. Indarkeria matxistaren albiste berriren bat dagoenero, agendan iraungi direnak etortzen zaizkit gogora, ezin ditut modu isolatuan ulertu, banatu. Hauteskunde kanpaina bete-betean gizon batek bere bikotekide ohia tiroz erail zuen Orioko kaleetan. Egun gutxiren buruan, gizon batek Maialen gasteiztarra hil zuen bere hirian bertan eta umeak orduak eman zituen amaren gorpuari begira. Haurdun zegoen. Baina orduan ere, denak egin zuen aurrera, indarkeria matxistaren adierazpen gorena ere ez delako nahikoa albiste, dena hankaz gora

jartzeko, azkura eragiteko, jakin-mine-tik haratagoko diskurtso batzuk lehen lerroan mantentzeko. Are gehiago, Segurtasun sailburuak esan zuen "ez dela erraza arrisku egoeran antzematen ez den biktima bat babestea". Maialenek bikotekidea salatu zuen lehenago eta urruntasun agindua zeukan. Erailak izan behar al dugu babestuak izan gaitezen?

Orri zuria aurrean dudala ezin burutik kendu nire herrian aste bakar batean salatu diren hiru eraso matxistak. Arrotxapeako txosnak itxi behar izana. Tuteran. Legorreta. *En nombre de ellas* Kote Cabezudoren kasuari buruzko dokumentalean agertzen diren biktimak; eta agertzen ez direnak. Esaten digute kontuz ibiltzeko, kanpoko "otso" bat dabilela hor nonbait, baina ez, kontua ez da kanpoko otsoa, gertatzen dena da otsoen erregimenean bizi garela: hau guztia baimentzen eta normalizatzen duen sistema patriarkala.

Nahiko nuke astuna ez izan, orri zuri bat dudan aldiro eltxoak giltzapetuta ez sentitu garuneko bi hemisferioetan, gorputzean. Beste zerbaiten inguruan idatzi. Nahiko nuke gizon kuadrillen taberna elkarrizketetan ardura zantzuren bat usaindu albotik pasatzerakoan. Beraz, astunak izateko motiboak ematen dizkiguzuen bitartean astunenak izaten jarraituko dugu. Besterik ez dakit, baina orri zuriak soberan ditut. ●

## Whatsappak



ARANTZA GUTIERREZ  
EHU-KO IRAKASLEA

**A**spaldian, norbaitekin zerbait komentatu nahi genuenean berarekin geratzen ginen edo telefonoa hartu eta deitzen genion. Gaur, berriz, whatsapp bat bidaltzeak ordezkatu du solasaldia. Eta berdin du non eta noiz harrapatzen zaituen; igorleak behar edo nahi duenean bidaltzen du, ordu txikitan bada ere. Ezin jakin zenbatetan mezu berri baten notifikazioak alertan jarri nauen hurbileko bati zerbait larria gertatu zaiolakoan, okurrentzia edo iritzia, atalka azaldutako bakarriketa edo laneako "larrialdia" jasotzeko; guztiak itxaron ahal zuten auziak.

Borroka galdua bada ere, partaide naizen hainbat elkarte edo antolakundetan gaia mahai gainean jarri dut eta mezuen bidalketarako ordutegia murrizteko eskatu. Talde batzuetatik alde egin dut. Bat-bateko mezularitza horren atzean komunikazio eredu erasokor eta inbaditzailea dago, norberaren kronemika errespetatzen ez duena eta askotan noranzko batean (goitik behera) ematen dena. Horregatik, ez entzutearena egiteko eskubidea aldarrikatzen dut, baita deskonektatzekoa ere, bereziki lanez ari garenean. Irtenbidea ez da hartzaileak isilean izatea, igorleak bidali aurretik bi aldiz pentsatzea baizik. ●



# (G)uda da



**ENEKO GORRI GANTIER**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**I**rakurle maiteak, eskusiba batekin hasi nahi nuke iritzi-artikulutxo hau: badator uda! Bai, bai, ate joka dugu oporren, herriko besten eta lagunarteko barbakoen sasoi. Frantziako Tourra, sanferminak, haurren udalekuak... Eskusiba batekin hasi, eta aitormen batekin segituko dut: nire hasierako helburua ez zen sasoiaren dinamikari buruzko kronika arina idaztea. Zertxobait konplexuagoa idazteko gogo nuen. Ausartagoa. Pikanteagoa. Hauteskunde giroak eta pil-pilean diren eztabaidek inspiratutako gogoetak zituen abiapuntu. Baina azkenean ez naiz menturatu.

"(Nire) borroka da, bide bakarra" zuen izenburua. Gure borroka esparruak polarizatzen diren garaiotan eta jendea mobilizatzea geroz eta zailagoa delarik, *gure* lehenetsunak galdekatzeko xedea zuen hasierako zirriborroak. Sektoreen arteko zubiak eraiki? Edo estrategia bakoitzaren nagusitasuna (hegemonia) irabazi? Bide instituzionala edo herri mugimendua? Preso eta iheslarien aldeko mendiko suak edo Bake Artisauak? Bagira\*ren aberri eguna edo Herribiltzarena? Herrian bizitzeko manifa bateratzailea edo okupazioa?... Baina erran bezala, ez dut lortu ideiak nahi bezain

Bide instituzionala edo herri mugimendua?  
Preso eta iheslarien aldeko mendiko suak edo Bake Artisauak?  
Herrian bizitzeko manifa bateratzailea edo okupazioa?

garbi pausatzea, eta ez naiz menturatu galdera horiek pausatzerara.

Ez naiz menturatu ere, ez naizelako sare sozialetan ibiltzen eta, beraz, gure mikrokosmosaren eztabaida asko eskapatzen zaizkidalako. Eta segur naiz jadanik norbaitek nonbait eta noizbait idatzi duela nik baino askoz hobeki, barnean sentitzen ditudan zalantza horiei buruz. Ez da gauza berria eta eztabaidak izatea sana da; desadostasunak eta gatazkak

bezain sana. Baina azken boladan iruditzen zait energia asko xahutzen ari garela gure ondokoarekin zergatik ez garen ados xerkatzeko, karrikara ateratzeko hainbeste arrazoi badelarik.

Barkatuko didazue metafora txar batekin segitzen badut, baina uste dut arroltze guziak ez direla beti saski berean bildu behar. Arroltze moleta zalea naiz (*tortilla*) eta arrautza asko erabiltzen ditugu tortillak egiteko Euskal Herrian. Baina arroltze baliu dute pintxoak, bixkotzak eta *Pisco Sour* koktelak egiteko ere. Atxiki ditzagun horretarako. Ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik!

Bitartean, Claude Harlouchet zenaren esaldi batekin agurtzen zaituztet: "Euskal Herria askatzeko molderik onena eraikitzen hastea da". EHZN ikusiko dugu elkar, azken mende laurdenean bertan eraikitzen baita Euskal Herri justuago, euskaldunago, feministago eta askeagoa. ●

**OHARRA:** 2.829 zenbakidun azken aleko hiru iritzi-artikuluren edukiak nahastuta zeuden: Mikel Otero, Arkaitz Zarraga eta Zigor Etxeburuarenak. [argia.eus](http://argia.eus)-en irakurri daitezke bertsiio zuzenak.

**Harrotasuna  
plazaratu  
dezagun**

*Baztan aniztasunaren alde!*





**HONDARTZA**



**GUZTIONA**

**GOZATZEKO  
PLAZERRA,**

**DA**



**ZAINTZEKO**

**BETEBEHARRA**





SOLWAY MULTINAZIONALA, UTZI ARGIA BAKEAN


# Kazetaritza ez da delitua

Guatemalako kazetari bati ARGIAk egin eta argitaratutako elkarrizketa bat ezabatzeko eta 15.000 euroko "kalte-ordaina" ordaintzeko eskatu digu Solway multinazionalak.

Egin ezean kasua epaitegira eramatearekin mehatxatu gaitu.

ARGIAk ez du horrelakorik egingo, ez gara isilduko, eta kazetaritza independentea aldarrikatzeko baliatuko dugu eraso.

 ARGIA  MINING SECRETS / PRENSA COMUNITARIA





FORBIDDEN STORIES

**A**RGIAk apiril amaierako 2022. alean elkarrizketa egin zion Guatemalako Paolina Albani kazetariari. Prensa Comunitaria hedabide digitalean kolaboratzen du Albanik. Hedabide independente horrek herri indigenetan, emakumeetan eta komunitateetan jartzen du begirada, eta ahotsa ematen die komunitateetako hainbat auziri, tartean, lurraren defentsari.

Mugarik Gabe GKEak gonbidatuta etorri zen Euskal Herrira, eta ARGIAko Leire Artola kazetariak elkarrizketa egin zion, besteak beste, esku artean duten nazioarteko ikerketa bati buruz: *Mining Secrets*. 2022ko martxoan argitaratzen hasi zen ikerketa horretan 65 kazetarik hartu dute parte. Horien artean, adibidez, Suitzako RTS irrati-

---

Ikertzaileek  
ohartarazi zuten  
maia komunitateen  
biziraupen-laboreei  
su emateko planak  
zituela Solwayk,  
Guatemalako  
Polizia Nazionalari  
dirua bidaltzen ziola...

telebista publikoko kazetariak daude, baita *The Guardian*, *Le Monde* eta *El País* egunkarietakoak ere. Ikerketaren oinarria zortzi milioi dokumentuko filtrazio bat izan zen: informatzaile anonimo batek Solway multinazionalaren jardunaren inguruko milaka mezu elektronikoko, grafiko eta enpresaren barne-dokumentu helarazi zituen.

Ikerketaren tamaina irudikatzen, aipatzekoa da elkarlan hori Forbidden Stories proiektuaren babespean argitaratu dutela, kazetarien segurtasuna bermatzeko. Izan ere, plataforma hori arduratzen da mehatxuak jaso dituzten edo arriskuan dauden kazetarien ikerketak sustatzeaz. “Kazetaria hiltzeak ez du eragingo istorioa hiltzea” da proiektu horren lema eta oinarria. Istorio horietako bat da *Mining Secrets*.



Ehunka mila dokumentu horietatik kazetariak ondorioztatu zuten Suitzian -Zug herrian- egoitza duen Solway Investment Group meatzaritza multinazionalak Guatemalan zituen bi filialek egindako kutsadura-txostenak ezkutatu zituela. Enpresak kudeatzen du El Estor herrian Fenix meategia, nikela erauzteko, eta kazetariak azpimarratu zuten herrialdeko lakurik handiena den Izabal kutsatu ondoren txostenak ezkutatu zituela multinazionalak. Burdin usaineko kolore gorrixkaz zikinduta agertu zen lakua 2017an, eta arrainak hilik topatu zituzten. Kontuan izatekoa da El Estorreko herritar asko arrantzaleak direla, eta lakua ezinbestekoa dela euren jardunerako.

Ikertzaileek ohartarazi zuten zonalde horretan bizi diren maia komunitateen biziraupen-laboreei su emateko planak zituela Solwayk, tokiko liderrak erosteko diru-funtsak zituela, Guatemalako Polizia Nazionalari dirua bidaltzen ziola... Hau da, Solway taldeak haren baliabide finantzario eta politikoak erabili zituela Guatemalan haren interesen aldeko erabakiak har zitzaten, filtratutako dokumentuetatik baieztatutenez. Solwayk akusazio guztiak ukatu ditu "oinarririk gabekoak" direla esanda.

Zortzi milioi dokumentuak pixkanaka aletzen ari da ikerketa taldea, eta oraindik multinazionalari buruzko informazio gehiago kaleratzea espero da. Nabarmentzekoa da, *Mining Secrets* ikerketan parte hartu duten kazetari eta hedabide askok, aurretik beste elkarlan bat osatu zutela ingurumen-delituak ikertzeagatik mehatxatutako kazetarien inguruan.

### MAIA KOMUNITATEAK SOLWAYREN AURKA

Inguruotako maia q'eqchi' komunitatea meatze proiektu horren aurka dago, eta borroka luzea egin dute enpresaren "jarrera gupidagabeak" salatzeke. Lurraren defentsan diharduten herritar horiek egunero ikusten dituzte beren herrietatik mineralez beterik ehundik gora kamioi igarotzen, eta horren aurka antolatu direnek salaketa judizialak, eraso fisikoak, mehatxuak, difamazio kanpainak hedabide handietan, espioitzak... jaso dituztela salatu dute. Herritarrak kontrolpean izateko, hainbatetan larrialdi egoera ezarri du Guatemalako Gobernuak El Estorren, eta eremua militarizatu dutela salatu dute bertakoek.



Manifestazioko liskarretan hil zuten Carlos Maaz arrantzalearen berri eman zuen Carlos Choc-ek, eta ordutik etengabeko kriminalizazioa eta jazarpena salatu ditu.

CARLOS CHOC / PRENSA COMUNITARIA

Elkarrizketa saretik ezabatzeko eskatu digute, baina 15.000 euroko "kalte ordaina" eta abokatuen lanaren kostua ordaintzeko ere

### GUATEMALAKO HEDABIDEAK JAZARRITA

Paolina Albani kazetariak kasu hori agerian utzi zuen ARGIAko elkarrizketan. Azpimarra jarri zuen Solwayk hedabideekin duen jokabidean: Guatemalako hedabide nagusiak erosiak dituela zioen berak, eta diskurtso ofizialetik ateratzen diren komunikabideak eta kazetariak jazartzen dituela.

Multinazionalari buruzko informazioa argitaratzeko ausardia izan duten kazetariak behin eta berriz salatu dute informatzeagatik kartzela zigorra eta heriotza mehatxuak jaso dituztela. Esanguratsua da Carlos Choc maia q'eqchi' komunitateko kazetariaren kasua, nazioartean ohartzuna izan zuena *The Guardian* eta *El País* bezalako medioetan: Solwayko filialaren aurka protestan ari ziren herritarrei ahotsa eman zien, eta manifestazioko liskarretan hil zuten Carlos Maaz arrantzalearen berri eman zuen Prensa Comunitarian; ordutik etengabeko kriminalizazioa eta jazarpena jasan dituela eta klandestinitatean bizitzera behartu dutela salatu ditu. Albanik hori guztia kontatu zuen ARGIAko elkarrizketan, salatzeke Guatemalako hedabide independenteetako kazetariak informatzeagatik kriminalizatuta daudela.

Guatemalako kazetarien egoeraren beste adibide argigarri bat da José Rubén Zamorarena. Ustelkeria kasuak argira ekarri izanagatik ezaguna da José Rubén Zamora. *Siglo Veintiuno*, *El Periodico* eta *Nuestro Diario* komu-





CARLOS CHOC / PRENSA COMUNITARIA

2017an areagotu egin ziren Fenix meategiaren aurkako protestak, Izabal lakua likido gorrixkaz zikinduta agertu zenean.

nikabideen sortzailea da, eta 2022ko uztailean sartu zuten preso, Alejandro Giammattei presidenteari loturiko ustelkeria kasu bat plazaratu eta bost egunera. Sei urteko kartzela-zigorra eta 300.000 ketzal guatemalarreko (35.000 euro) isuna ezarri diote, diru zuriketa leporatuta. Zamora ikerketa kazetari entzutetsua da, eta sari eta aitortza ugari jaso ditu.

Udefegua Guatemalako erakundearen arabera, 2021ean giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, komunitate eta erakundeen aurkako 1.002 eraso izan ziren Guatemalan, eta gizarte-komunikatzaileak dira kriminalizatuen daudenak. Guatemalako Kazetarien Elkartearen esanetan, Giammatteiren gobernua hasi zenetik prentsa askatasunaren aurkako 350 eraso egin dituzte. Hain justu, ekainaren 25ean izango dira datozen hauteskundeak.

### ORAIN, ARGIA ERE JOPUNTUAN

Solway multinazionalak Espainiako Estatuan duen abokatu bulegoa ARGIA-

---

Ez dugu elkarrizketa ezabatuko. Ez dugu dirurik ordainduko. Gaiaz informatzen jarraituko dugu

rekin harremanetan jarri da eta mehatxutzat hartzen duguna eskatu digute: Paolina Albani kazetariari eginiko elkarrizketa saretik ezabatzeko eskatu digute, baita 15.000 euroko “kalte ordaina” eta abokatuen lanaren kostua ordaintzeko ere. Horiek egin ezean, kasua epaitegietara eramateko mehatxua egin digute, difamazioa egotzita.

Ez gara bakarrak izan. Dakigunez, *Le Monde* egunkari frantsesari salaketa jarri zion Solwayk 2020an, baita Forbidden Stories-i ere, eta gobernuz

kanpoko erakundeek ohartarazi zuten Solway saiatzen ari zela “isilarazten haiek egindako legez kanpoko jardueren berri ematen ari ziren kazetariak”.

Mugarik Gabeko kideek gertutik ezagutzen dute El Estorreko meategiaren kasua, Prensa Comunitariaren bidez, eta berretsi digutenez, kazetariak mehatxatzea estrategia handi baten parte da: “El Estorren gertatzen ari dena kontatzera ausartzen diren komunikabideak estutzea eta intimidatzea da estrategia. Orain ARGIAri pasa zaio, gero beste bati... beldurra sortu nahi dute. Lortzen badute, kazetariak zalantza gehiago izango dute antzeko kasuak salatzeko erabakitzerakoan”, ohartarazi digu GKEak. Baina zergatik ARGIA? “Komunikabide handiagoetara iristeko beste bide batzuk dauzkate, eta errazagoa zaie zer argitaratzen den kontrolatzea”, azaldu digute Mugarik Gabekoek.

Zoritxarrez, gero eta ohikoagoak dira kazetarien eta hedabideen lana baldintzatzeko asmoa duten salaketak, eta ingelesez SLAPP gisa ezagutzen den





praktika gaitzesgarria zabaltzen ari da. 1980ko hamarkadan asmatu zuten terminoa Denverreko Unibertsitateko irakasleek, zera definitzeko: interes publikoaren babesean jarduten duten pertsonen aurkako jazarpena eta larderia.

Zenbait enpresak, agintarik eta multinazionalak hainbat herrialdetako abokatu bulegoen zerbitzuak kontratatzen dituzte ahots kritikoak isilarazteko, eta horretarako salaketa judizialak erabiltzen dituzte hedabide eta kazetarien artean beldurra, zentsura edo autozentsura eragiteko.

Multinazional batek agindu behar al du ARGIAN zein elkarrizketatu ahal dugun eta zein ez?

### KAZETARITZA EZ DA DELITUA

Gure komunikazio proiektuaren aurkako eta ARGIA sostengatzen duen komunitate osoaren kontrako eraso zuzena dela ulertzen dugu, eta nagusiki, adierazpen askatasuna eta herritarren informazio eskubidea jarri dituzte jopuntuan. Ez dute nahi gaiak haiena ez den bertsiorik zabaltzea, eta horregatik jo dute Albaniren hitzei lekua eman dienaren kontra.

Publikoki ondorengoa erantzun nahi diogu urtean milioiak irabazten

## Multinazional batek agindu behar al du ARGIAN zein elkarrizketatu ahal dugun eta zein ez?

dituen multinazional horri: ez dugu elkarrizketa ezabatuko. Ez dugu dirurik ordainduko. Gaiak informatzen jarraituko dugu eta zuen mehatxua baliatuko dugu Euskal Herrian, Guatemalan eta leku orotan kazetaritza independentea beharrezkoa dela publikoki azpimarratzeko.

ARGIA zigortzen badute, mundu zabalean ingurumenaren defentsan ari direnek eta hedabide guztiek ere galduko dute. Horregatik, ARGIAren komunitateko kideei, gure irakurleei eta kazetaritzaren sektoreari babesa eskatu nahi diegu kazetaritzaren independentzia komunitatean defendatzeko. Balio dezala banaka eta isilpean egiten

dituzten mehatxuei elkarrekin eta ozen erantzuteko, soilik horrela lortuko dugulako gelditzea.

Kazetaritzaren izaera eraldatzailea otzantzea bilatzen duten jokabide oldarkor horiek ez ditugu onartzen. ARGIAk informatzen jarraituko du, orain arte bezala. Ez da lehen aldia ARGIAren eta ARGIAko kazetarien aurkako erasoak jasaten ditugula, baina azkena izatea nahi dugunez, gure lanbidearen defentsa beharrezkoa den lekuraino eramango dugu. Dagoeneko jarri gara harremantetan European SLAPP kasuei aurre egiten espezializatu den abokatu talde batekin, eta gure kasuaz informatu ditugu.

### ELKARTASUNA GUATEMALAKO KIDEEI

Guatemalako Prensa Comunitaria hedabideari eta Paolina Albani kazetariari ARGIAren elkartasuna adierazi nahi diegu. Baita lankideon babes eta baskadarik gozoena bidali ere Guatemalan lurraren defentsan ari diren herrientzat eta jazarri dituzten kazetari guztientzat. Solway guganaino heldu eta mehatxu egiteko gai izateak sinesgarritasuna ematen die hango kazetarien salaketei.

Behar den guztietan ozen esango dugu: kazetaritza ez da delitua. Ez gaituzue isilduko. ●



Aleksandr Bronstein-ek sortu zuen Solway Investment Group.

WIKIPEDIA / ESTONIAN FOREIGN MINISTRY CC BY SA

## *Zein dago Solway multinazionalaren atzean?*

Solway Investment Group batez ere nikela esplotatzen duen eta Suitzan egoitza duen meatzaritza multinazional pribatua da, munduko garrantzitsuenetakoa sektorean. Webgunean adierazten duenez, Guatemalan, Ukrainan, Mazedonian eta Indonesian ditu proiektuak, eta 2021ean 1.450 milioi dolarreko aktiboak zituen.

**B**ere mapa korporatiboari begiratuta, Maltan erregistraturiko Solway Holding LTD konpainiaren pean ageri zaizkigu, lehen lerroan Suitzako Solway Investment Group, eta ondoren honako enpresa subsidiarioak: Mazedonian Busim Doel Radovich; Ukrainan Pobuzhsky Ferronikel Plant; Guatemalan Compañía Procesadora de Niquel de Izabal SA eta Compañía Guatemalteca de Niquel SA; Argentinan Minera San Jorge; Kongoko Errepublika Demokratikoan Kaminex Limited; Filipinetan Homonhon Chromite; Indonesian Aquila Nickel LTD eta Asera Bahoomahi Sorowallo; eta Errusian, KurilGeo.

Errusiako azkeneko enpresa horri dagokionez, Ukrainako ge-

rra hasi zenean, 2022ko martxoaren 3an Solwayk ohar bidez iragarri zuen herrialde hartan zituen proiektu guztietatik ateratzen ari zela, tartean KurilGeotik, Japoniatik gertu dagoen Kurilen artxipelagoko Urup irlan dagoen esplotazioa.

Baina Solwayen sarea askoz konplexuagoa da. *Mining Secrets* ikerketaren arabera, gutxienez 23 sozietate egongo lirateke Solwayrekin erlazonaturik eta paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialdeetan erregistratuta, hala nola: Zipre, Saint Vicent eta Grenadinak, Birjina Uharte Britainiarrak... Ikerketak agerian utzi du gutxienez 2007 eta 2015 artean 1.900 milioi dolar transferitu zirela sozietate horietara Swedbank eta Danske Bank banku suediar eta danimarkarrek Estonian zituzten



sukurtsalen bidez: “Horren zati handi bat Errusiatik eta Europako ekialdetik irten zen gezurrezko enpresetara, diru zuriketaren munduko eskandalu handienetako batean”, dio ikerketan parte hartu duen OCCRP elkarteak, ustelkeria eta krimen antolatua salatu eta ikertzeko kazetarien sare globalak.

Ikerlariak diotenez, sozietate horiek Solwayrekin lotura korporatiboak ziztuzten, baita bere goi kargu eta exekutiboekin ere, tartean multinazionalaren fundatzaile den Aleksandr Bronsteinekin eta egun Solwayren zuzendaritza batzordeko presidente den bere seme Dan Bronsteinekin.



**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)



**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Eztiago industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16  
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus

## 2003. urtean nikelaren negozioan sartu zen eta gaur egun mineral horren munduko produzitzailer handiena da

### ALEKSANDR BRONSTEIN ETA PARADISE PAPERS

Aleksandr Bronstein Leningradon jaio zen, baina familiarekin Estoniara joan zen bizitzera, “antisemitismotik ihesi”, ingeleseko Wikipediako bere biografiak dioenez. Horren arabera, Israelgo lobbyekin lotura zuzena dauka eta hainbat ekimen bultzatu ditu diruz. 1980ko hamarkadan metalurgia arloko kargu publiko klabeak izan zituen Estonian, ondoren Solway Investment Group sortzeko. Bere izena 2017ko *Paradise Papers* filtrazioan ageri da –Ikerketa Kazetaritzaren Nazioarteko Partzuergoak duen datu basean egiaztatu dugu honakoa– paradisu fiskaletan inbertsioak zituzten 120.000 enpresa eta norbanakoen artean.

Hedabide, erakunde eta gobernu askoren aburuz, Solwayren atzean kapital eta inbertitzaile errusiarrak daude, nahiz eta multinazionalak behin eta berri-ri ukatu duen hori.

1990eko hamarkada erdialdetik aurrera, Errusiako Volgograden eta Uraletan aluminioa, lur arraroak eta altzairua ekoizteko plantak erosten hasi zen Solway, baina gero saldu egin zituen. 2003. urtean nikelaren negozioan sartu zen eta gaur egun mineral horren munduko produzitzaile handiena da. Horrez gain, urrea eta kobrea ere produzitzen ditu.

Nikela erauzketa bidez ateratzen da eta kutsadura handia eragin ohi du prozesu horretan –zenbait tokitan iragarri dute jadanik ari direla probatzen “nikel berdea” delakoarekin, *greenwashing*-aren beste adibide bat–. Material hori guztiz beharrezkoa da auto elektrikoek baterientzat eta bere erauzketa hedatzen ari da mundu zabalean.

Solwayk dioenez, gaur egun 45.000 tona nikel produzitzeko gaitasuna du urtean. Horren zati handiena, %70 inguru, Guatemalako El Estor herriko

meategian lortzen du. *Mining Secrets* ikerketaren bidez publiko egin den bezala, Guatemalako Izabal inguruko herritarren eta ingurumenaren kontra-ko jarduerengatik salaketa larriak jaso ditu multinazionalak.

### AEB-AK SOLWAYREN NIKELAREN GOSE

2022ko azaroan AEBetako Altxorraren Departamentuak jakinarazi zuen zigorra ezarri ziela Dmitry Kudryakov errusiarrari eta Iryna Litviniuk bielorrusiarrari, baita Compañía Guatemalteca de Niquel (CGN), Compañía Procesadora de Niquel (ProNiCo), eta Mayaniquel konpainiei ere, “Solway Investmenten subsidiario moduan funtzionatzen dutenak, meatze guatemalarrak esplotatzen dituen enpresa errusiarra”, eroskeria eta ustelkeria ekintzak tarteko.

Kudyakovek eta Litviniukek urte luzetan izan dituzte kudeaketa karguak CGN eta ProNiCo konpainietan, Solwayk onartu duen gisan, eta enplegua “bertan behera” utzi diete zigor horien ondorioz. Baina multinazionalak ukatu du Mayaniquel-ekin harremanik duenik eta berriz esan du ez duela zerikusirik Errusiako Gobernuak figurekin.

Horrek guztiak zerikusia izan dezake berriki *Newsweek* astekariak emandako eskusibak batekin. Hedabide estatubatuarrek apirilaren 6ko alean argitara eman duenez, enpresa kanadar bat Solwayren Guatemalako konpainiak erostekotan da, AEBetako gobernuaren laguntzarekin.

Montrealen egoitza duen Central America Nickel (CAN) korporazioak Solwayren Guatemalako Fenix proiektua erosi nahiko luke. AEBetako ogasunak zigorturik dauden Solwayren aktiboak merkeago eskuratzeko aukera baliatu nahi du enpresa kanadarrak, AEBen Guatemalako enbaxadako diplomatiko batekin elkarlanean.

Helburua litzateke CANen erositako aktibo horiek ondoren AEBetako America Rare Earth Sources Inc. izeneko enpresara transferitzea. Dirudienek, Guatemalako nikela erabat bideratuko litzateke AEBetako auto elektrikoek baterien eskariak asetzera.

*Newsweek*-ek operazio guztia kokatu du lur arraroen eta mineralen munduko erreserbak eskuratu nahian AEBek Txinarekin duten lehiaren baitan. Hortaz, energia krisiak sorturiko gerra hotz berrian, pieza garrantzitsu bat lirateke Solway multinazionalaren meatzeak. ●



# ARGIA

## BABESTEKO

## ARRAZOI

### 1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

### 2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

### 3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

### 4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartearen eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

### 5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

### 6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

### 7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

### 8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorroetan.

### 9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

### 10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

### 11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

**TXIKITIK ERAGITEN** [argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)





*Analisia*

M28KO UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

# EH BILDUREN ARRAKASTAZ

2023ko maiatzaren 28an Hego Euskal Herrian izan ziren udal eta foru hauteskundetako berri garrantzitsuena EH Bilduk lorturiko arrakasta izan zen. Ezkerreko koalizio soberanistak emaitza oso onak lortu zituen lau lurralde historikoetan gorakada nabarmena erdietsiz eta udal hauteskundeetan emaitzak hobetuz herri gehienetan.

 ASIER BLAS

**N**ola azaldu EH Bilduren arrakasta? Aldagai askoren artean pentsatzen dugu lau izan direla bereziki garrantzitsuak: bi politikoak (endogenoak) eta bi teknikoak (exogenoak).

Politikoen artean lehena kudeaketa da. Udal hauteskundeetan EH Bildu boterean egon den herrietan, salbuespenak salbuespen, bere emaitzak hobetu ditu, horregatik pentsa genezake egin duen kudeaketa saritua izan dela. Bestalde, herri askotan EAJren kudeaketa ez da izan hautesle kopuru esanguratsu baten gustukoa eta, horregatik, zigorgisa edota kudeaketa hobego baten bila boto-emaileek abstentziora jo dute edo boto aldatetarako egon direnean nagusiki EH Bilduren mesedetan izan dira.

Bigarren aldagai politikoa da EH Bilduren inplikazioa Espainiako gobernagarritasunean, zentro-ezkerreko koalizio gobernua babestuz eta politika progresistak aurrera ateratzeko erabakigarria bilakatuz. EAJk saldu izan duen

idea, Euskadirentzako gauzak lortzen zituztela Madrilen, EH Bilduk hobetu egin du erantsiz politika sozial eta aurrerakoien berme funtzioa izatea. Ondorioz, bere profil pragmatikoa eta ezkertiarra indartu egin da erraztuz Elkarrekin Podemos bozkatzaren boto-emaile ez abertzalearen erakartzea. Hemen beste elementu garrantzitsu bat da ezker federalistaren boto-emaileak gehien bat hirigune eta herrietan bizi direla, hain zuzen ere, Madrileko agenda mediatikoa nagusitzen den tokietan. Testuinguru honetan EH Bilduk Espainiako gobernagarritasunean parte hartu izanak oihartzun mediatiko handia eman dio Madrilen eta Estatu espainiarrean, sektore aurrerakoien artean ere bai, ikusgarritasun maila handiagoa lortuz.

### **PSOE-TIK HARAGOKO EZKERRAREN KRISIA**

Aldagai teknikoei begiratuta, PSOEtik ezkerreko dagoen esparru politikoaren krisia. Ezkerreko koalizio soberanistak

ondo aprobetxatu ahal izan du Madrilen egin duen lana, honek Elkarrekin Podemosetik EH Bildurako trantsizioak erraztu dituelako. Halere, bi elementu hauek alde edukita ere, EH Bilduk bere zereginak oso ondo egiten ditu, izan ere, Bilboko edo Gasteizko alkatetzetarako hautagaiak Elkarrekin Podemoseko hauteskunde soziologiarekin konektatzeko aproposagoak ziren, batez ere Bilboko kasuak suposatuta du aldatetara handi bat ordura arte EH Bilduk aurkezturiko hautagaien irudiarekin.

Edonola ere, aldagai tekniko garrantzitsuena abstentzioa izan da. EH Bilduk emaitza oso onak atera ditu, baina hauteskunde soziologian ez da gertatu aldatetara olatu handi bat. 2019ko hauteskundeekin alderatuta EH Bilduk 29.816 boto irabazi ditu: Araban 3.139, Bizkaian 16.093, Gipuzkoan 4.465 eta Nafarroan 6.119. Orotara borobilduz 346.000 boto dira. Emaitza bikainak, dudarik gabe, baina kontuan izan 2011n Bilduk, Aarriarrik gabe, borobilduz 316.000 boto



Donostian EH Bilduko hautagaiak eta buruzagiak emaitza onak ospatzen maiatzaren 28ko gauean.

atera zituela eta EAeko Aralarren botoak gehituta 353.000 ziren (kanpoan utzita Aralarrek gidatzen zuen Nafarroa Bairen 50.000 botoak). Baina oraingoan hauteskunde errendimendua (jarlekuak eta zinegotziak) askoz hobea izan da abstentzioari esker. Izan ere, Hego Euskal Herrian aspaldian irabazle nagusia abstentzioa da, bereziki EAEn.

Nafarroako hauteskunde guztien batez besteko abstentzioa %30 da eta oraingoan bi puntu gehiagokoa izan da; berriz EAEn datuak %40 gairitu du, ohikoa baino lau puntu gehiago eta, oro har, inoiz hauteskunde foral batzuek izan duten parte-hartze baxuena izan da 1991koak salbuetsita. Honek guztiak posible egin du inoiz ezker abertzaleko edozein hautagaitzak atera dituen emaitza material (boto eta ordezkari kopurua) hoberenak lortzea. Alderdi nagusien artean EH Bildu eta PP izan dira hazkundea izan dute bakarrak, baina berritasun nagusia ezkerreko soberanis-

2019arekin alderatuta  
EH Bilduk 29.816 boto  
irabazi ditu: Araban  
3.139, Bizkaian 16.093,  
Gipuzkoan 4.465 eta  
Nafarroan 6.119. Orotara  
346.000 boto

ten emaitza da eta ez PPren igoera apala EAEn (ez da iristen 10.000 bototara), izan ere, orain lau urte PPK oso emaitza kaskarrak izan zituen eta aurten bakarririk (UPN gabe) aurkeztu da Nafarroan.

## AUKERA POLITIKORAKO EGITURA BERRIA

Orain arte datu orokorrez aritu gara, irakurleak apur bat ezagutzen bagaitu badaki alderdiek ateratzen dituzten boto baliagarrien ehunekoak edo jarleku kopuruen aldaketak baino, sakoneko botere instituzional eta soziologia aldaketek zentratzen dutela gure interesa, horregatik, kasu berezia egiten diogu alderdiek duten boto kopuruari edo hauteskunde-eroldaren babes ehunekoari. Horiei begiratuta ez dugu boto gorabehera handirik egiturazko aldaketak aurreikusteko, baina edozein hauteskunde analisi luparekin egitea komeni bada, oraingoan ezinbestekoa da ulertzeko badaudela aldaketa kualitatibo garrantzitsuak.

Lehen begiratu batean abstentzioaren gorakadak sortzen duen abantaila egoera ahazten badugu, EH Bilduren 30.000 botoen igoerak ez dirudi aurrera salto oso handia, baina tentuz aztertzen



badugu non eman den boto igoera uler-tuko dugu aldaketa kualitatibo baten aurrean gaudela eta aukera politikorako egitura berri bat irekitzen duela ezker soberanistaren hazkunde potentzialean.

Hau dibulgazio artikulua batenez, datu guztiak ez ditugu xehe-xehe egingo eta adibideak emateko era sinplifikatua aurkeztuko ditugu, besteak beste, borobilduak eta sistematizatu gabe. Bestalde, Araba eta Bizkaia ekarriko ditugu analisisira aldaketa handienak izan dituzten herrialdeak direlako, eta hauen ikerketatik eratorritzen diren ondorioek Gipuzkoa eta Nafarroara bidaia dezaketelako.

Lehenik eta behin, argitu beharko genuke EAEk alderdi anitzeko sistema moderatu bat duela, geroz eta alderdi biko sistema inperfektu bateranzko joera nabariagoarekin. Zer esanahi du horrek? Bi alderdiren (EAJ vs. EH Bildu) arteko lehia nagusitzen ari dela, non beste hiru alderdi txikiak (PSE, Elkarrekin eta PP) gehiengoak eman ditzaketen. Ikuskera orokor hori nagusi da tamaina ertaineko herrietan, txikietan aldiz alderdi biko sistema ia perfektu bat dugu (EAJ vs. EH Bildu) eta herri handi eta hirietan alderdi anitzeko sistema moderatua dago, Bilboko salbuespenarekin, azken hori une batzuetan ia alderdi hegemonikodun sistema batetik gertu egon baita. EH Bilduk foru aldundietan eta autonomia erkidegoetan boterera ailegatzeko duen erronketako bat da herri handien eta hirien agertokian bere emaitzak hobetzea. Beste bi agertokietan dagoeneko boteretsua da eta irabazle izan daitekeen alderdi baten papera jolasten du.

### ARABA: GASTEIZ ETA LAUDIO

Ikus dezagun Araban zer gertatu den. EH Bilduk irabazi dituen 3.000 botoen ia 2.000 Gasteizen eta 700 Laudion izan dira. Azken honetan 2015ean eta 2019an EH Bildu kaltetu zuten hautagaiak independenteak egon ziren, baina aurten ez da egon horrelako aukerarik eta ezkerreko soberanistek 3.111 boto lortu dituzte, 2011n Bilduk eskuratu zuen boto kopurua baino 54 gehiago, eta Bilduk eta Aralarrek lortu zituzten 3.404 botori iritsi gabe. Gasteizen, ordea, EH Bilduk 23.786 botorekin ia mila bototan gaintu ditu 2011n Bilduk eta Aralarrek lortutako botoak.

Laudio ez da kasu aproposa Arabako sakoneko aldaketak ulertzeko, bere historia industrialagatik eta ezker abertzalearen pisu historikoagatik, bertan



Iruñean ere gogotik ospatu zituzten emaitza onak.

EH BILDU



Gipuzkoako EH Bilduko hautagaiak topo egiten, Maialen Iriarte buruan.

EH BILDU

Gasteizen aldiz, alderdi anitzeko sistema batean, EH Bilduk elastikotasun handia du botoak irabazteko, abertzaleen poltsatik, baina bereziki ezkerreko bototik

ezker federalistaren soziologia inguruan egon zitezkeen asko eta asko EH Bilduren boto-emaileak izan daitezke aspalditik. Antzekoa gertatzen da Gipuzkoako tamaina ertaineko herri gehienetan.


Hauteskunde soziologia horretako herrietan EH Bilduk bere emaitzak hobetzeko duen elastikotasuna txikiagoa da hauteskunde hegemonia lor dezakeen alderdi gisa funtzionatzen duelako.

Gasteizen aldiz, alderdi anitzeko sistema batean, EH Bilduk elastikotasun handia du botoak irabazteko, abertzaleen poltsatik, baina bereziki ezkerreko bototik. Horretarako aldeko faktorea du hiriarren gaztetasuna gainerako Euskal Herriarekin alderatuta, koalizioaren irudi berriagoa eta azken urteetako nortasun ideologikoaren lausotzea, pragmatismo ezkertiarren eta soberanistaren mesedetan. Hemen EH Bilduk arrakasta izan du ezker federalistatik boto kopuru esanguratsuak erakartzen eta bide hori urratzeko pizgarri asko ditu, besteak beste, ehiza-eremu hori oraindik handia da, abstentzioan gordetzen den boto-emailea eta Elkarrekin bozkatu duena kontuan hartzen badugu.

## BIZKAIA: HOZKA BOTO FEDERALISTARI

Orain begiratu bat eman diezaiogun Bizkaiari. EH Bilduk irabazi dituen 16.000 botoen jatorria honakoa da: 2.600 Bilbon, 1.150 Galda-kaon, 850 Getxon, 600 Basaurin, 450 Leioan, 350 Zornotzan, 350 Erandion, 250 Etxebarrin, 250 Mungian, 200 Arrigorriagan eta 5.000 Ezker alde sartzan den Enkarterri hauteskunde-barrutian (igoera adierazgarrienak garrantziaren arabera ordenatuak: Santurtzi 1.300, Ortuella 300, Sestao 750, Alonsotegi 150, Trapagaran 300, Portugalete 400, Barakaldo 400...).

Bizkaian EH Bilduk 2011ko Bilduren emaitzak 11.000 bozetan hobetu ditu, ia Bilduren eta Aralarren baturaren kopurua lortuz, baina, hauteskunde indar horren banaketa desberdina da orain. Bizkaiko herri txikietan eta ertainetan gutxi-asko Bilduren emaitzak errepikatu badira, hobekuntza Bilbo Handiari zor diote. Adibidez, EH Bilduk hiriburu Bilduren eta Aralarren 2011ko boto kopuruaren antzekoa lortu du 2023an. Hori bera gertatzen da Ezker aldeko herri askotan, baina eskualde honetan batzuek erraz asko gaintu dituzte 2011ko ezkerreko soberanista zerrenda guztien emaitza, kasurik esanguratsuenak Santurtzi da: 2011n bi zerrendek 3.784 boto eskuratu zituzten eta 2023an EH Bilduk 5.323. Hemen, Gasteizen bezala, EH Bilduk hozka egingen dio ezkerreko boto federalistari eta ez da harrizkoa, izan ere, Bilbo Handian bigarren indar gisa ageri da eta ezkerreko boto erabilgarria bezala kontsolidatzen ari da. Hori gutxi balitz, ezker federalistaren esparrua oraindik handia da eta hortik EH Bilduk hazkunderako potentzial handia du.



Berdeak markatzen du  
-ilunago indartsuago-  
EH Bilduren indarra  
Hego Euskal Herrian.

Badirudi Podemosen agerpenaren efektua amaitu dela, ezker federalista hustuz joan den heinean bere maila historikoetara bueltatu da eta EH Bilduk 2011ko goranzko bidea berreskuratu du

Laburbilduz, EH Bilduren arrakasta da 2011n martxan jarri zuen indar metaketaren emaitzetara bueltatzea: bototan Bilduk ateratako emaitzak hobetu ditu eta hobekuntzaren zati handiena

indar gutxien zuen udalerrietan eman da. Zentzu horretan, badirudi Podemosen agerpenaren efektua amaitu dela, ezker federalista hustuz joan den heinean bere maila historikoetara bueltatu da eta EH Bilduk 2011ko goranzko bidea berreskuratu du bere posizioak indartzuz bototan eta ordezkarietan. Abiapuntu indartsu hau hobea da 2011koa baino, izan ere, koalizioa kontsolidatua eta kohesionatuta dago, ezkerreko boto-erabilgarriaren onuradun nagusia bilakatu da eta historikoki bere irudi, erreferente eta botoek zituzten lurralde desorekak zuzentzen ari dira. ●

**Garenaz harro**

Astigarragako Udala

**EKAINAK 27** 18:00etan, Erribera kulturgunean:  
**Trans eta LGBTBI+ legearen inguruko mahai-ingurua:** Josebe Iturrioz, Brayan Altimasberes eta Asmi Molina.  
Moderatzailea: Izei Etxeberria.

**EKAINAK 28** 10:30ean, Gaztelekuko nerabeek  
**LGTBI murala** margotuko dute.

**EKAINAK 30** 19:00etan, Erriberako Terrazan:  
Zinegoak nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiko **film laburrak**.



INOR EZ DA ILEGALA

# Hör Berlin eta legalitate kontu batzuk

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



HÖR BERLIN

DJ Brava Hör Berlinen. Emanaldiak online eskaintzen dituen plataformaren Youtubeko kanalak 644.000 harpide ditu eta DJ euskaldunaren emanaldiak 11.900 ikustaldi izan ditu jadanik.

**H**an agertu zen, Hör Berlinen, Brava DJa, bere txapela gorri eta guzti *Inor ez da ilegal*a leloa zeraman kamiseta jantzita. Orain hilabete pasatako kontua da eta spoilerra egin badizut ere, irakurle, amaiera horixe duen istorio polita kontatuko dizut gaur.

Brava DJ izenez ezaguna den Sara N'Donga gazte euskaldunari -24 urte besterik ez ditu- 2023ko maiatzean Hör Berlin musika jaialdian parte hartzeko gonbita egin zioten duela hilabete batzuk. DJ munduan nazioarteko plataforma hori erakusleho ona da eta bere lana erakusteko aukera eskuratu zuen...Horraino nahiko esperotakoa, ezta?

Prestatu zituen bere puskak, abiatu zen Alemaniara eta jada Madrilen zela ezin erantzun egokirik topatu buruan zebilkien galderari: zer jantziko dut nire sesioan? Bisera erabakita zuen, "beti ibiltzen dut bisera eta Berlinen ere ezin zuen bestela izan, bisera gorria neraman

maletan", azaldu digu. Baina, eta arropa? Ze azalekoa, pentsa dezake baten batek, akaso. Egingo dituen musika-nahasketetan pentsatzen aritzeko uneetan horrelako kontuei bueltaka. Baina hotzean pentsatzen jarrita, zer jantziko zenuke zuk, irakurle, nazioarteko mailan horrelako aukera suertatuko balitzaizu? Uste duguna baino gehiago aztertuko genuke momentu horretarako *outfita*.

Total, piztu zitzaion bonbilla. Lagun bati ikusi zion *Inor ez da ilegal*a kamiseta. "Ostras, horixe da nik jantzi nahi dudana, zabaldu nahi dudana mezua", kontatu digu DJak. Baina berak lelo horrekin poltsa bakarrik eduki eta kamisetarik ez. Ez ahaztu Madrilen zegoela jada, Berlinerako hegaldea hartu aurreko orduetan.

Berehala egin zituen gestioak, lortu zuen ARGIAko lagun baten telefonoa, aipatu zion egoera eta segituan bidali zioten... diseinua! Horrekin serigrafia den-

da batera jo eta momentuan egin ahal izango zioten berak nahi zuen trixerta.

Pentsatu eta egin. Unean bertan lana egingo zioten denda topatzea uste baino gehixeago kosta bazitzaion ere, Sarak prest zuen bere sesioan jantziko zuena. Prest zuen munduari zabaldu nahi zion mezua.

## BERLINERA IRITSI ETA...

Hegazkinetik jaitsi berritan topatu zuen lehen pertsonetako batek diseinu bereko kamiseta zeraman alemanieraz eta kontatu zion azken orduetakoa. "Diseinua ezaguna da nazioartean, hizkuntza askotan dago egin eta aukera ematen zidan nik nahi nuen mezua euskaraz zabaldu eta aldi berean jende askok zer jartzen duen ulertu ahal izateko", azaldu digu.

Sara N'Donga ala Brava DJ, plazer bat *Inor ez da ilegal*a mezua mundura zabaltzeko elkarlanegatik. ●

## Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Euskal komunitateari egiten dion ekarpenarekin bat natorrelako; lan egiteko duen modu txukun, taxuzko eta sakonarengatik. ARGIAren partaide izateak merezi duelako."

Donostiatik Iñigok

"Euskararen unibertso gero eta txikiagotua indartu eta garatzen laguntzen duelako ARGIAk, eta euskara jasoa erabilia gainera. Txalogarria iruditzen zait Telegrameko kanala."

Aulestitik Aintzanek

## EKO-FEMINISMOA EDO HERIOTZA



"LURAREN ILUSTRAZIOA". EGILEA: KATIE SCOTT

## MUNSTROAREN UMETOKIA EKO-FEMINISMOTIK ERALDATZEN

AMANDA DIAS VERRONE, JUNKAL ARRUTI TENA, LETICIA URREBIZKAIA GIL,  
MARTA BARBA GASSÓ, MIRENE BEGIRISTAIN ZUBILLAGA

**E**kologismoak eta feminismoak. Modernitatean eraikitako pentsamolde, praktika eta mugimendu sozial askotarikoak, planetan zehar dabiltzan hainbat herriren antzinako esperientziekin etengabe berrelikatuta. Inguratzen eta zeharkatzen gaituen munstroaz jabetzeko heldulekuak, eta gure artean basabideak marrazteko uzta partekatua.

Ekofeminismo hitza Françoise d'Eaubonneten 1974ko *Le féminisme ou la mort* testuan irakurri dezakegu, eta bertan dio arrazoiketa sinplea dela: Feminismoa edo heriotza. Eta argudiatzen du: "Gaur egungo mundua salba dezakeen mutazio bakarra botere maskulinoaren 'inbertsio handia' da, nekazaritzako gehiegizko ustiapenaren ondoren industriaren hedapen hilgarria dakarrena. Ez da 'matriarkatua', noski, edo 'emakumeen boterea'; emakumeen eskutik boterea suntsitzea baizik. Eta, azkenik, tunelaren amaiera: munduaren berdintasunezko kudeaketa, birsortzeko (eta ez hainbeste 'babesteko', oraindik ere

lehen olatuko ingurumen-zale atseginek uste duten bezala)".

Oinarri erradikal hori askotariko begirada ekofeministekin osatzen joan da. Korrante ugari, baina funtsezko premian batzen direnak: emakumeen\* zapalkuntza eta naturaren suntsipena egituratzen duten logikek harreman estua dute, heteropatriarkatua. Zapalkuntza berezitu eta anitzen eskutik, lurraldeen eta bizitzen gaineko dominazio-sistema eraikitzen du heteropatriarkatuak, modu integrarean: maila ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta sinbolikoan.

Dominazio-sistema integrala inguratzen eta zeharkatzen gaituen munstroaren umetokian sortzen da. Familia, ugalketa, ahaidetasun eta sexu/genero sistema normatiboetatik harago joatea proposatzen digu Donna Harawayek munstroaren umetokiaren metaforarekin, eta eraikita ditugun zenbait kontzeptu eta bizipen errotik iraultzera garamatza; hainbat dikotomia (naturakultura, gizon-emakume, arrazoia-emozioa, gizaki-izaki, burua-gorputza...),

**egonarrria**  
Lurrari entzuten dion saioa

---

Gai nagusia: **Elikadura estrategiak**  
Esperientzia: **Arriatxu denda**

Aintzira Oñederra eta Goiuri Alberdi ikerlariak azalduko dute herri eta bailarek nola planifikatu dezaketen elikadura burujabetza. Esperientzien atalean, Ane Zeberioek Arriatxu baserrian lantzen dituzten barazkien izen bereko dendan eta Tolosako azokan saltzeaz hitz egingo digu.

ENERITZ ARZALLUS

argia.eus    bizibaratztea.eus



# ARABARTU ETA GERO ZER?



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**H**eriotzorria oparo lilitzen da Mauleko San François (beraiek San Frantses itzultzen dute) Ikastetxearen ertzeko kaperaren hiru puntako zeinutegiaren azpian. Heriotzorriari (*Nerium oleander*) “eroitz” eta “eroritz” ere esaten zaio. Heriotzorria pozoitsua da, ederki asko dio izenak, badaezpada. *Oleander* abizenak olibondoaren (*Olea europaea*) hostoen tankerakoak dituela dio, bere ura hartu eta batean eta bestean jendea hil duten hosto horiek. Dioscoridesez idatzi zuen txakur, asto, mando eta gainerako lau hankakoak hiltzeko gai zela; behor edo behi bat hiltzeko 20 gramo hosto, ardia 5 gramo eta, bi hankakotan, gutako edozein, 20 bat hosto. Bere osagaiek eraso gogorra egiten diote bihotzari eta... Otoizgunearen atarian heriotzorria udaro ihaurri lilitua, goriki eta guriki, ikur dotorea da.

Lore-baratze eta parkeetan ere maiz ikusiko duzu. Beti bada iskanbilaren bat: pozoitsua dela jakin duen gurasoren batek bere haurra inguruan jolasten dela-eta egunkarira idazten du eskutitz izutzaile horietako bat eta udaleko arduradunak lorazainei ipurditik kentzeko hagintzen die eta... Eskerrak egunkariak desagertzera doazen...



HAVANG(NL) / WIKIMEDIA COMMONS

Esaera zabaldua da parkeetan erabiltzen diren hautespren genetikoak bereizitako barietate lilituagoek ez dutela basatiek adina pozoiz. Erreka-arroilak eta itsasertza gustuko ditu, ura ikustea behintzat nahi du; aldiz, behar, oso ur gutxi behar du bizitzeko.

Landareen pozoiak gu hiltzen gaitu eta guk eragindako lehortetzarrek landareak. Gero eta euri gutxiago egiten du, eta gure nekazaritza eta lurreko lanak erabat aldatuko dira. Aramaioko Markelekin lehengoan, eta aipatu nion aspaldi ez bezala aurten baratzea ureztatu beharrean zegoela gure itsasaldean. Dida erantzun zuen bere koblarri senarekin: arabartzen ari zarete. Eta halaxe da, Euskal Herri atlantiarra Araba bihurtuko da, zentzu horretan. Baratzeak ureztatu beharko dira. Araba eta Nafarroa hegoaldera joan beharko dugu sekula erabili gabeko teknika horiek ikasi eta iparraldeko lurretara egokitzeko.

Gure amona Joxepa zenak antuxunaren sistema erabiltzen zuen ureztatze-ko: landare landatu berriari antuxunkada bat ur eta bihar-etzitan bigarrena eta azkena. Horrekin itsastan ziren eta kitto ura. Orduan ez zen urik etxean eta haruntzaxeagoko aska batetik ekarri behar izaten zen baldekadaka. Ura

urra zen. Gaur ura etxean dugu, eta hodi malgua nonahi; baita ureztaketa sistema automatikoak ere... Baina nondik datorkigu ur hori? Laster han ere ez da izango... Heriotzorri lehorzaileak jarri beharko ditugu orduan: gure nekazaritzaren heriotza, gure paisaia-rena, gurea. ●

## IRAKURLEAK GALDEZKA

**Atsaldeon Jakoba. Iratzea belagitik kentzeko noiz moztu behar da? Noiz da datarik onena?**

👉 Iñaki

Egokiena ilgoran mozte da eta lore edo fruitu egunean bada hobe. Uztaileko ilgora 3tik 16ra izango da eta lore eta egun egokiak 3, 4, 5 goiza, 6 arratsaldea, 7, 11, 12 eta 16 goiza.

## SOSOLA

GALSOROAN BISITAK,  
OGI ON BATEN ATZEAN  
DAGOENA EZAGUTZEKO

GARAZI ZABALETA  
@TIRIKITRANN

**E**nrike Gisasola eta Aizpea Izagirre Eibarko Sosola baserriko kideak dira, eta urteak daramatzate Biolur elkarteko okin-baserritarrekin batera ogiaren munduan murgilduta: “1960-70eko hamarkadan hemen sortu zen okin-baserritarren eskolakoak gara, Europatik zetorren egiteko modu berri bat jarraitzen dugu. Baserriko ogia egiten dugu, errota etxean bertan izanda, fermentazio luzeen bidez, barietate zaharrak erabiliz eta garia ahalik eta gertuen ekoitziz...”, azaldu du Gisasolak. Euskal Herriko garia darabilte aspalditik, haiek ere ekoizten dute, eta duela hiru bat urte, beste pauso garrantzitsu bat eman zuten: Madrilgo hazi banku batetik bertako barietate zaharrak eskuratu eta ugaltzen hasi ziren. Ekoizpen dezentea dute honezkerok, eta ekainean, Sosolako galsorora bisitak antolatu dituzte, proiektuari bultzada ekonomikoa emateko helburuarekin.

### ESKUKADA TXIKI BATETIK, 200 KILO GARI

Gurean kontserbatzen ez zen baina Madrilgo hazi bankuan mantentzen zituz-

ten Gipuzkoako eta Bizkaiko zazpi gari-barietateren eskukada txiki bat lortu zuten duela hiru urte, 200 gramo inguru. “Gari kilo batek hamar ematen ditu, eta horrela hasi ginen”, dio. Lehen urtean 200 gramotik bi kilo gari lortu zituzten, eta iaz, berriz, bi kilotatik 20 bat. “Aurten, esperantza da 20 horietatik 200 bat kilo lortzea, eta horrekin posible izanen dugu lehen ogi-probak egitea, barietateen portaera ezagutzeko”. Gipuzkoa 1, Gipuzkoa 2, Bergara goiztiarra, Motxo Gipuzkoa, Motxo belloso —edo Motxo ilara— eta Martzela izan dira ugaltzea lortu duten bertako sei barietateak. Zazpigarrena, galdu egin zuten lehen urtean.

Nekazariak espero bezala atera dira gauzak prozesuan, hiru urtetan esperotako ekoizpena iritsi baitira, bidean barietate bat galdu arren. “Gari barietate hauek oso garaiak dira. Zergatik? Seguraski hezetasunaren aurrean, lurretik ahalik eta distantzia handiena edukitzeko izanen da”, azaldu du nekazariak. Sosolan bertan eta Errezilgo Solaka eta Irure Txiki baserrietan ari dira barietateen biderketa egiten. Gisasolak azpi-

marratu duenez, lur falta da momentu honetan proiektuaren zailtasun handiena. “Urte hauetan nahikoa lur izan dugu biderketarako, baina orain, ekoizpenetarako, gehiago behar genuke. Norbaitek proiektua babestu nahi balu, lurrak errentan-edo hartzeko prest geundeke, bereziki Urola aldean”, gehitu du.

### BISITA PEDAGOGIKOAK, AUTOFINANZIAZIOZ BIDE

Ekaineko lau asteburuetan eginen dituzte bisitak Sosolako gari soroetan, 15 pertsonako taldeetan. “Soloan gari guztietatik pasa, ikusi eta bakoitza bereizten dugu. Hemen duguna erakusten dugu eta bisitariekin informazioa konpartitzen”, dio. Ondoren, baserrian hamaiketako goxoa prestatzen diete bisitariak; guztia, hamar euro ingururen truk. “Guk ez dugu finantziario publikorik, hau gure ekimen propioa da, eta bisitetako diru horrekin uzta biltzeko kolektiboki erosi genuen makina ordaintzea da asmoa”, dio. Bisita batean parte hartu nahi duenak (0034) 639 04 64 28 zenbakira deituz edo idatziz jar daitezke Sosolako kideekin harremanetan. ●



...ETA KITTOI



**HEMEN DAGO  
NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA





# Sexu eraso batean hartzen diren jarrerak plazaratu ditugu

## 'BEITA' WEBSAILA

Oñatiko XUP antzerki taldeko kideek sortu zuten *Beita* antzezlan, eta websail bihurtuta eta lantaldea handituta pantailara ekarri dute. Pantaila txikietara ekarri ere, mugikorretara. Kuadrillako festa batean gertatutako sexu eraso oinarri hartuta, publikoak hausnartzea dute helburu. Zortzi aktore dira, eta horietako birekin, Maddi Altolagirre eta Paula Polorekin, hitz egin dugu.

### IRATI IRAZUSTA JAUREGI

#### **Nola sortu da *Beita* proiektua?**

**Maddi Altolagirre:** Antzezlan gisa jaiotzen duela bi urte inguru. Taldekide bati bururatu zitzaion oholtzatik pantailara igarotzea ideia ona izan zitekeela, eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. Horrela hartu du websail formatua.

#### **Zein da kontatu duzuen istorioa?**

**Paula Polo:** Kuadrillako parranda batean kide batek beste bati eraso egiten dio, baina ez da ikusten nork. Eki eraso jasan duenaren lagunik onena da, eta gertatutakoa ikertzen saiatzen da, erasotzailea nor izan den argitzeko.

**M. Altolagirre:** Thriller eran dago kontatuta. Egiaren bilaketa horretan zenbait sekretu ikusiko dira, baita gainerako kideek eraso baten aurrean hartzen duten jarrera ere. Jokamolde horiek plazaratu

eta salatu nahi izan ditugu.

**P. Polo:** Pertsonaia guztiek ezberdin jokatzen dute, baina guztiek dute ezaugarri bat komunean: berekoikeria. Guztiek begiratzen diote gehiago euren buruari lagunari baino.

#### **Bestelako gai batzuk ere landu dituzue.**

**M. Altolagirre:** Trama nagusia sexu eraso izan arren, gazteon egunerokotasuneko zenbait gatazka ere landu ditugu; esate baterako, drogen salmenta, apustuekiko menpekotasuna, heriotzaren dolua edota bikote harreman irekiak. Gai asko ukitu ditugu, publikoa identifikatuta sentitzeko modukoak.

#### **Istorio bera kontatzen da antzerkian eta websailean?**

**M. Altolagirre:** Oinarria bera da, baina websailak aukera eman digu luzatzeko. Pertsonaia bakoitzaren bizitzan gehiago sakondu dugu eta elkarren arteko harremanak hobeto azaldu ditugu.

#### **Nortzuk hartu duzue parte?**

**M. Altolagirre:** Irazan Oñatiko antzerki taldea da, eta gazteen taldea da XUP. Bertako zortzi kide gara aktoreok, guztiak oñatiarrak: Sara Arregi, Malen Perez de Arenaza, Danel Teran, Izar Mendiola, Ander Murillo, Aitor Gomez eta Paula eta biok. Bertan sortu genituen ideia eta gidoia, baina websailerako lantaldea handitu egin dugu, kalitatea nahi genuelako. Oñatikoak ez direnak ere badira tartean, zenbait adinetakoak.

**P. Polo:** Ez genuen bilatzen taldekideak profesionalak izatea. Nahi genuena zen

“”

*Gazteok sortutako  
proiektua da, eta  
uste dugu gure  
errealitatea hobeto  
erakusten lagundu  
digula*

lana gure estilora egiten duen eta artea maite duen jendea.

#### **Zein da estilo hori?**

**P. Polo:** Bakoitzak bere ardura izan du eta zekiena aportatu du. Batera egin dugu lan eta inor ez da besteak baino gehiago izan, guztia adostua izan da. Ez dakigu oso ongi non sartu garen, inoiz ez dugu egin telesail edo websail bat, eta proiektua sortzerakoan eta grabatzerakoan elkarriz gauza ugari erakutsi dizkiogu.

**M. Altolagirre:** Horrez gain, helburua ez da sekula ekonomikoa izan, gure baloreak eta mezua zabaltzea baizik.

#### **Zertan eragin nahi diozue publikoari?**

**P. Polo:** Hausnartzea nahi dugu. Sexu erasoaren aurrean pertsonaiek hartzen dituzten jarrerak errealitatean gertatzen diren arren, horiek normalizat ez jotzea nahi dugu. Publikoak bere burua egoera horretan imajinatu eta hartu izan dituen edo har ditzakeen jarrerak pentsaraztea, hausnartzea.

#### **Norengana iritsi nahi duzue?**

**M. Altolagirre:** Batez ere gazteengana, nahiz eta helduagoek ere ikusteko modukoa den. Gazteok sortutako proiektua da, eta uste dut gure errealitatea hobeto erakusten lagundu digula horrek.

**P. Polo:** Onuragarria da beste publiko batek ere ikustea zer gertatzen den berea ez den belaunaldi batean.

#### **Noiz eta non ikusi ahal izango dugu websaila?**

**M. Altolagirre:** Ekainaren 25ean argitaratuko dira lehen lau kapituluak, Gaztea irratiko Youtube-ko kanalean. Hurrengo

laurak, berriz, uztailaren 4an. Hamabost minutu inguruko zortzi kapitulu izango dira denera.

**P. Polo:** Aurrestreinaldia ekainaren 16an egin genuen, Oñatiko Santa Ana antzokian.

**M. Altolagirre:** Hasiera ofiziala etxean eman nahi izan diogu.

#### **Sare sozialetan martxan zaudete jada.**

**M. Altolagirre:** Instagramen (@beita-websaila) hasi gara komunikazio kanpainarekin, eta lehen kapituluak igoko dugu: pertsonaien aurkezpenak, trailerrak... Nahiz eta gure lan nagusia websaila den, baliabide gehiago ere landu ditugu. Pixkanaka igoko ditugu *teaserrak*, elkarrizketak...

**P. Polo:** Guretzat berria da sare sozialetan ere gure lanak plazaratzea. Azken urteetan aldatu egin da ikus-entzunezkoak plazaratzeko modua, eta orain sare sozialak ere proiektuen parte dira.

**M. Altolagirre:** Gure publikoa gaztea den heinean sare sozialak guregana gerturatzeko beste modu bat dira. ●





## 'EL ETERNAUTA' KOMIKIA

# Eternitatearen nabigatzailea

Hector German Oesterheld (1919 -1978) gidoilari eta Francisco Solano López (1928 -2011) marrazkilari argentinarrek sortu zuten *El Eternauta* komiki klasikoa 1957etik 1959ra bitartean, telebistaren eragina txikia zenean, eta komikiaren ospea eta harrera, aldiz, masiboa. Sasoiko zientzia fikzioaren ordezkari, kontakizuna hainbat gairen inguruan ardatzen da, hala nola, erresistentzia, adiskidetasuna, estralurtarren inbasioa, terrorea eta humanitatea. Halaber, istorioaren protagonista Juan Salvok askatasunaren aldeko borroka kolektiboa ordezkatzeko du. Orain, 60 urte baino gehiago pasa direnean, "behin-betiko bertsioa" kaleratu dute.

### JULEN AZPITARTE

**A**rgentinako historia popularraren ikonoa bilakatu da *El Eternauta*, baita Latinoamerikako komikigintzarena ere. Horiek horrela, espainieraz idatzitako lehen eleberririk grafikotzat jotzen dute adituek. Baina ez da soilik horretan geratzen: komikiak biltzen duen istorioaren hamaika irakurketa politiko eta sozial egin dira hamarkadaz hamarkada. Eragina izan zuten idatzi eta marraztutakoak. Oesterheld eta bere lau alabak Argentinako diktaduran desagertu ziren 1978an, Jorge Rafael Videla tiranoaren morroiek atzeman ondotik. Izan ere, obra jazarria eta debekatua izan zen diktadurak iraun zuen urteetan, hain justu, 1976tik 1983ra. Horren guztiaren ondorioz, *El Eternauta* komikiari mito edo historiko izaera erantsi zaio.

Bada, Planeta argitaletxeak oraintsu itzal handiko komiki horren behin betiko bertsioa plazaratu du: zuri beltzeko 350 orrialde, formatu etzanean; orain arte argitaratu den bertsio fidelena dela esan daiteke.

Halaber, *Netflix* plataformak ikus-entzunezko bertsioa ere iragarri du: Bruno Stagnaro zuzendari eta Ricardo Darín izango da Juan Salvoren azalean sartuko den aktore nagusia. Zinemagileak argi esan du, era pertsonalean, haurtzarora bidaiatzen laguntzen diola: "Eternautak nire aita irudikatzen du, hala oroitzen naiz, nola ekartzen zituen komikien asteroko faszikulak. Uste dut nire bizitzan osorik irakurri nuen lehen gauzetako bat izan zela, 10 urterekin, eta eragin handia izan zuela nire herriaren egindako fikzioa ulertzeko moduan".

### POST-APOKALIPSITIK, INBASIORA

*El Eternauta* 1950eko hamarkadako zientzia-fikzio klasikoaren emaitza da, zeina emanaldika eman zen argitara 1957tik 1959ra bitartean, *Hora Cero* aldizkarian. Juan Salvo izeneko Eternauta du protagonista. Salvok, metafikziozko ariketa baten bitartez, komikiaren gidoilaria bisitatuko du, bere bizitzaren historia kontatzeko asmoz: elurte misterioz bategi Eternautaren bizitza hondatu du, elur-malutak ukitzen dituzten pertsona guztiak hil egiten baitira. Era berean, gizateriaren etorkizuna kolokan jarriko duen inbasio estralurtar bat aurreratu besterik ez du egingo elurte fosforeszenteak.

Hala, lehenengo 70 orrialdeetan istorioa giro post-apokaliptikoan garatu

izanagatik ere, handik gutxira, biratu, eta estralurtarren inbasio klasiko batekin egingo du topo irakurleak. Lehenengo zati hori Daniel Defoe 1719an idatzitako Robinson Crusoe eleberriko protagonistak bizi duen isolamenduarekin lotzen da: protagonistak, elurtearen ondorioz, "heriotz-ozeano" batean daude bakartuta. Osterhelden hitzetan: "El Eternauta, hasieran, Robinsonen nire bertsioa izan zen. Gizonaren bakardadea, inguratua, preso hartua, ez jada itsasoak hartua, heriotzak baizik. Ez Robinsonen gizon bakartua ere, baizik eta familia duen gizona, lagunak. (...) Hori izan zen abiapuntua. Gainerakoa... gainerakoa bakarrik hazi zen, bakarrik hazten den bezala, uste dugu, eguneroko bizitza".

Kontakizunaren bigarren fasea, inbasioarena, berriz, askoz epikoagoa da, abentura zaleagoa. Komikiaren behin betiko bertsioaren hitzaurrean, Juan Sasturainek azaltzen duenez, "istorio zoragarri eta tragiko bat da, noren aurka borrokatzen ari diren inoiz jakingo ez duten absurdora hurbiltzen dena, Gaizkia, Gorroto kosmikoa, erresonantzia iluna, baita psikoanalitiko ere". Narra-


zioa Buenos Aires hiriburuaren kartografia ezagunean garatzen da. Hala, abentura klasikoetako irla misterioitsuak eta altxor piratak eraldatzen ditu idazleak kale, metro geltoki edo futbol zelaietan.

Horiek horrela, askoz boteretsuagoak diren etsaiei aurre egin beharko diete kontakizunaren protagonistek. Tanta-ka erakusten den mehatxu horri kontra egiteko, idazleak protagonista-zerrenda korala osatu zuen, ideia zehatz

bat azaltzeko asmoz: humanitatearen aukera bakarra etsaiari aurka egiteko batera jardutea da. Horrela, hainbat klase eta izaerako gizakiak gehituko dira borrokara, besteak beste, intelektualak, langileak, militarrek eta gazte lotsaga-beak. Orduko pentsamendu eta jarre-  
rak tarteko, emakumeen zeregina etxera eta familiara mugatzen da, akzioa gizonzkoen inguruan garatzeko. Ondorioz, idazleak heroi kolektibo bat osatzen du; hau da, herria bera, AEBetatik zetozen



RTVE





superheroi indibidualista eta liberalen jarrerarekin kontrajartzeko, eta, ziurrenik, etorkizun hurbil batean herri argentinarrak pairatuko zuen zapalkuntza diktatorialaren itzalaz ohartarazteko.

### TESTU BLOKEAK

Gaurko komikigintzarekin alderatuz gero, *El Eternauta* testu asko biltzen duen istorioa da. Alde horretatik, irakurketa neketsua izan daiteke, baina istorioaren egiturak ez du zirrikiturik erakusten, eta Solano López marrazkilaria-aren estilo urria bikain egokitzen da tiretan antolatutako orrialde etzanetara. Testu saldo hori, baina, Osterhelden estiloaren marka da, bere zaletasun eta ogibide guztien gaintetik, literatur zale amorratua baitzen –marrazkilaria, kazetari, gidoilari, idazle, geologo eta dibulgatzaile zientifiko jardun zuen–. Hartara, garaiko zientzia fikziozko zinematik baino, tartean, *Them!* ("Haiek!") (Gordon Douglas, 1954) eta *Invasion of the Body Snatchers* ("Ultragorputzen inbasioa") (Don Siegel, 1956), Osterheldek gehiago

edan zuen literaturatik. Ondorioz, bere lana, eta beste hainbat aitzindarirena, funtsezkoa izan zen komikigintzak merezi zuen prestigioa jaso zezan eta goi-generotzat hartua izan zedin.

Joera literario nabarmen horren hari-ra, oso esanguratsua da 1980an plazaratutako *Historia de la historieta argentina* ("Argentinako komikiaren historia") liburuan Carlos Trillo eta Guillermo Saccomanno idazleek Oesterheldi eginiko elkarrizketan kontatzen dena:

**Trillo:** Inoiz ez dizu lotsarik eman komikiak idazteak?

**Oesterheld:** Ez.

**Trillo:** Genero handi eta genero txiki-  
kien artean maiz egiten den banaketa dela-eta galdetzen dizut.

**Oesterheld:** Alderantziz. Komikigintza genero handia da. Izan ere, zer irizpiderekin definitzen dugu zer den handia edo txikia? Nire ustez, objektiboki, genero handia audientzia handiarekin lotzen dut. Eta nik Borgesek baino askoz audientzia handiagoa dut. Alde handiz gainera, eta ziur nago Borgesek ere gidoiak idatzi nahi izango

zituela, Argentinako idazle askok bezala.

**Saccomanno:** Orduan ez dizugu berriro galdetuko gidoilariet buruz.

**Oesterheld:** Berriro diotsuet. Nik ez dut ia komikirik irakurtzen, nik literaturara irakurtzen dut. Etengabe irakurtzen dut. Eta Borgesek gauza bat ateratzen badu, joan eta erosi egingo dut. Horiek dira nire iturriak. Esandakoak ez nau errudun sentiarazten; egile onak irakurtzen ditut: Stevenson, txikitatik. Edo Salgari, esan dizuet.

**Oesterheld:** Ez.

Literaturarekiko grina hori odisea ahaztezin baten nabigazio-egunkari bilakatu zuen Oesterheldek. Herrialde baten tragedia iragarri zuen zientzia fikziozko abentura, zeina diktaduraren aurkako matxinada gisa irakurtzen den. Herriaren altxamenduaren aldarria haitzaten duen istorioa.

Finetan, eta Sustarain hitzaurre-egilearen hitzetara bueltatuz, "*Eternautara* beti itzuli behar da. Arrazoi literario asko daude, arrazoi historiko asko, irakurketa posible asko". ●



# Hititen eta euskal ontzi baten hondoratzea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**A**natolia, duela 3.200 urte. Hititen inperioa hondoratu egin zen. Brontze Aroko potentzia nagusietakoa, besteak beste, asiriarren eta egiptoarren aurka aritutakoa, oso urte gutxitan desagertu zen. Sumendiak, lurrikarak, piratak, migrazioak, inbasioak, epidemiak... hipotesi asko bota dira bat-bateko gainbehera azaltzeko, baina berriki *Nature* aldizkarian argitaratutako ikerlan batek argitu du misterioa: hititen inperioak ezin izan zion aurre egin hiru urteko lehorte luze bati (K.a. 1298-1296). Erantzun zehatza zuhaitzen enborren eraztunetan irakurri du Sturt Manning Cornell unibertsitateko arkeologoak, hau da, dendrokronologia erabili du.

Horretarako, Gordionen (Turkia) dagoen Midas erregearen hilobiko egurrezko ganbera aztertu du –errege ezagunaren izena duen arren, ez dakigu zein erregerentzat eraiki zuten–. Ganbera duela 2.700 urte inguru eraiki zuten ehundik gora enbor erabiliz. Frigiako erresumaren garaian izan zen hori, Hititen gainbehera baino mende batzuk geroago. Baina ipuruaren egurra erabili zuten, eta zuhaitz espeziea luze bizi ohi denez, hemezortzi enbor identifikatu zituzten hititen garaian bizirik zeudenak. Eta guztietan aurkitu dituzte muturreko ur eskasia adierazten duten hiru eraztun bereizgarriak.

Baina, dendrokronologiari esker, enborrak ez dira soilik egutegiak; mapak



Midas erregearen hilobiko ipuru enbor hauetan dago idatzita hititen inperioaren gainbehera.

ere badira. Tokian tokiko eraztunen sekuentziak osatu ahala –Kalifornian *Pinus longaeva* espeziearen 8.000 urtetik gorako kronologia osatu dute–, egurra noizkoa den jakiteaz gain, nongoa den ere jakin daiteke.

2002an Galesko Newporteko portu zaharrean XV. mendeko ontzi-hondarrak aurkitu zituzten. Nigel Nayling dendrokronologoak datatu zuen 26 metroko ontzia, baina ontziko egurraren eraztunak Erresuma Batuko erreferentzia dendrokronologiko ugariekin alderatuta, ez zuen sinkronizaziorik topatu. Egur hura ez zetozen britainiar uharteetatik. Osa-

tutako sekuentzia Europan ezagutzen zituen laborategietara bidali zuen eta, hala, Arkeolanera iritsi zen 2005ean. Baina orduan Arkeolanek osatua zeukan erreferentzia kurba mugatua zen. 2011n eta 2012an, XIII. mendera arte luzatu zuten eta Josue Susperregi dendrokronologoak Newporteko erreferentziekin alderatu zuen. Eta biek bat egin zuten. Nayling berehala etorri zen Euskal Herrira eta Irungo laborategian, Susperregirekin batera, astebetean egiaztatu zuen sinkronizazioa perfektua zela. Newporteko 26 metroko ontzia Euskal Herrian hazitako haritzek eraiki zuten. ●

DOSSEMAN



ISRAELGO ANTZINAROKO AGINTARITZA

## Erromatar adreiluak maletategian

Jerusalemgo ohiko polizia-kontrol batean, auto baten maletategia ireki eta erromatar garaiko hainbat adreilu aurkitu berri dituzte ezustean. Adreiluak *Legio X Fretensis* marka dute eta, horri esker, adituek uste dute adreiluak Hadriano enperadorearen garaian, K.o II. mendearen hasieran fabrikatu zituztela Hebron inguruan, eta eraikin

publiko batean erabili zituztela. Adreiluak hobeto aztertuta jatorrizko eraikin hori aurkitzeko itxaropena dute adituek, baina aztarnategia espoliatzaileek arkeologoen baino lehen topatu dutenez, ez dakite ondarearen zati hori honezkero merkatu beltzean sakabanatua eta galdua egongo ote den. ●





## LIBURUA

# 'Your body is a battleground'



SRC

## PUTA

NELLY ARCAN

ALBERDANIA, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Ohean irakurri dut liburu hau eta ez dit amets goxo edo hezerik ekarri. Egileak erabiltzen dituen irudien arteko bat da ohea, bizitza eta heriotzaren gunea izan daitekeena berarentzat. Ispilua ere maiz agertzen da, bere ahizparekin, bere amarekin, bere lankideekin simetria jolasak egiten ditu tarteka, identifikazioaren bidez bere burua desagertzera. Errezelak dira beste irudi bat, auzoei ezkututzen diete gelan puta eta bezeroaren artean gertatzen direnak. Eta aldizkariak behin eta berriz aipatzen ditu emakumeen kosifikazio eta hipersexualizazioaren erakusgarri, gazte eta eder izan beharra, sistema heteropatriarkalarentzat desiratuak eta baloratuak.

Nelly Arcanen *Puta* liburua 2001. urtean argitaratu zen eta polemika han-

dia piztu zuen. Hitzostean esaten den moduan, bere gorputzari, puta izaerari eta azentu quebecarrari gutxiespenez egiten zioten erreferentzia hedabide eta kritika misoginoek, eta apenas aipatzen ziren lanaren ekarpen literarioak. Niri Virginia Woolfen *stream of consciousness* edo kontzientzi-jarioa ekarri dit gogora; Mary Shelleyren *Frankensteineko* abandonoarenekin; Annie Ernauxen estilo gordina; Amelie Nothomben autofikzioaren bilaketa; Danele Sarriugarten esaldi luzeak *Erraiak*-en; edo Alaine Agirreren *Odol mamituakeko* gaitzan murgiltzea.

Bere psikoterapeutarentzat idazten hasi zen, unibertsitateko ikasketak ordaintzeko prostituzioan egindako ibilbideari buruz hausnartzeko. Asoziazio librearen bidez jardun zuen lan literario

gogor baina mamitsua onduz. Berrehun orri horiek irakurtzeak sistema heteropatriarkalean emakume izatea zer den eta zein ondorio dituen gogoraraziko digu hitzen jarioaren bidez eta gorputzaren kurba bakoitzari gupidagabe begiratuta.

Maria birjina eta Eva bekataria; edertasunaren kanona eta adinkeria, derrigorrezko heterosexualitatea eta pentsamendu heterozuzena, familia harremanak eta maitasuna, depresioa eta suizidioa, hitzen okada luzea, estilo zuzena, fikzioa eta saiakera, sintaxiaren erabilera, begirada marjinala, metaforak eta errepikapenak, tentsioak eta kontrasteak... Gauza askori buruz hitz egiteko aukera ematen digu liburu honek, Mendebaldeko jendarte androzentriko eta sexistaren erradiografia ketu bat osatzen duelako. ●



MUSIKA

# Errusiako piano tradiziorik onena



COLOSSEUM TICKET

## EUSKADIKO ORKESTRA + YULIANNNA AVDEEVA

**ZUZENDARIA:** Robert Treviño.

**BAKARLARIA:** Yulianna Avdeeva (pianoa).

**EGITARAUA:** Wagner, Chopin eta Xostakovitxen lanak.

**LEKUA:** Gasteizko Principal Antzokia.

**DATA:** ekainaren 8an.

### MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**E**uskadiko Orkestrak pasioz eta musikaltasun handiz beteriko saioa oparitu zuen 2022-23 denboraldia amaitzeko.

Izaera handiko hiru konpositore eta bakarlari bikain bat izan ziren Principal Antzokiko entzuleen gozagarri, dudarik gabe.

Richard Wagnerren *Nurembergeko maisu kantariak* obraren obertura ederrarekin hasi zen gaua. Bi tema handienak patxadaz eta dotoreziaz aurkeztu zituen orkestrak, eta segurtasunez eta soinu osoz moldatu zen taldea Robert Treviñoren aginduetara.

Baina, jakina, saioaren une nagusia Chopinen *Pianorako eta orkestrarako fa minorreko 2. Kontzertua*-rekin iritsi zen, egungo panoraman dugun piano-jole onenetako batek interpretatuta. Argi

geratu zen zergatik irabazi zuen Yuliana Avdeevak Chopin Lehiaketa 2010ean (lehen emakumea izan zen Martha Argerichek 1965ean lortu zuenetik).

Nabarmendu ziren une oro bere diskurtso musikalaren aurkezpen dotorea, soinu ezin zainduagoa, pedalaren erabilera neurritsu eta zuzena, esaldi musikalen arnasketa egokia eta fraseatzean inprimatzen zuen erritmo fina. Kontzertua teknikaz eta pasioz egindako jarioa izan zen, dotorezia infinituarekin. Pianissimi bikain eta delikatuak eta bere distira, arintasuna eta energia behar denean, piano-jotzaile perfektu bihurtzen dute.

Jaso zituen txalo merezien aurrean, bis gisa Xostakovitxen miniatura bat eskaini zuen, bals bat, non bere pultsazioaren fina beste behin agerian geratu zen.

Eta hauxe izan zen, hain zuzen ere, kontzertuaren bigarren zatiko konpositore protagonista. Euskadiko Orkestra "luzitu" egin zen, Dimitri Xostakovitxen *15. Sinfonia, la maiorrean, op. 41* obrarekin, artista errusiarraren azken lanarekin hain zuzen ere. Konposizio arraroa da, beste konpositoreen lan batzuen aipuekin, entzulea benetan lekuz kanpo uzten duena. Xostakovitxek heriotza hurbil zuenez une horretan, ulertu behar da obra honetan ez duela kontzesiorik ematen eta bere *ni* barnekoena aurkezten duela, entzulearen begirada harrituaren aurrean.

Orkestra espero zen mailan egon zen. Treviñok muntaketa eta soinu trinkotze lan ona egin zuen, eta horren emaitza bertsio dotore eta noblea izan zen, zailantzarik gabe. ●





# Lehiarako prest

✍ IÑIGO SATRUSTEGI

📍 NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**B**TNren bertso-gaindosia ondo digeritu ostean, berriro ere ekin diote Nafarroan lehiari. Udazkenean egingen dute NBT, baina zizka-mizka batzuk egin dituzte uda aurretik, txapel eta txapelketa gosez direnendako. Aulkirik ez da, ordea, denendako oholtaza gainean. Kanporaketetan aurrenekoa Larraun ibarrean egin zuten, eta bigarrena, berriz, Etxaurin. Espetatiba guztien arabera, aukera gehiago zuten bertsolariek sailkatzeko bigarren saio honetan.

Areto txikia eta beroa zuten aurrean sei bertsolariek. Eta beroari heldu zioten lehen ariketatik bertatik. Orduan bota zuen Karasatorrek, kaleko langilearen azaletik, niretzako arratsaldeko punturik politena izango zena: *izerdia isuri bat da eta tanta bat soldata*. Aktoreen famaren zama, artisauen lan garestia, jana ongi banatzen ez duten pisukideak... Bertsoak gora eta behera, eta irristadaren bat edo beste. Adimen artifizialari kasu egitearren galdutako bikoteak ere, aise erantzun zion gaiari, inprobisatzeko duten gaitasunari keinu eginez. Gaiek askotan ez didate asko esaten, eta batzuk gehiegitxo mugatzen dutela uste duen horietako naiz. Saiora ekarri ninduen aditu-arituak, berriz, oholtzakoei jarritako gairen bat ehunka aldiz egin dutela ere komentatu zuen.

## NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA (AURRE-KANPORAKETA)

**NON-NOIZ:** Etxaurin, ekainaren 2an.

**PARTE-HARTZAILEAK:** Bittori Elizalde, Egoitz Gorosterrazu, Ainara Iregi, Aitor Irastortza Arrizurieta, Saats Karasatorre, Eki Mateorena.

Ahots berriak datoz Nafarroa aldetik, izan ere, saioko sei bertsolarien artean, bik lehendabiziko aldia zuten txapelketan, eta gainerakoak ere gazteen taldean sartzekoak dira oraindik ere, adinez bederen. Gero zalantza datorrit gaztetasun hori aldeko izanen duten, egiten dituzten erreferentziak epaileek ulertuko ote dituzten. Baina tira, ofizioetan, Ieregiren erraztasuna eta ideia freskoak nabarmenduko nituzke. Karasatorreren irudiak, eta Irastortzaren eta Mateorenaren kantaera. Baina zerbaitekin geratzen banaiz, hobe esanda, norbaitekin, Iruñeko promesa sorpresarekin da. Elizaldek erakutsi zituen planta, bertsokera eta zein asmorekin datorren. Gaztetasuna dakar, eta ideia ederrak margotzen ditu. Kanporaketan baina, anbizioz heldu nahi izan zien gaiei eta handi geratu zitzaion, akaso. Nolanahi ere, ongi apuntatu eta segitzeko izena dugu errotxapearrarena.

Eta lehiaketa den aldetik, bertsolariek hainbeste maite ez duten alderdia ere hor: puntuaketarena. Karasatorre garaile. Sorpresa gutxi hemen. Hurrenkerarekin eta aurreko kanporaketako emaitzekin desadostasuna adierazi zuten bertsozaleen mundilloan dabilzanek. Baina, txapelketak hori ere badu, eta urrian itzuliko da bete-betean. Esan dezakedana da nik badudala jada nire faboritoa. ●



# Hitz gezidunak

Gaia: \* Euskal Eskola Publikoaren Jaia 2023

JAIKI HAUR HIZKERAN, EDARI	ZUHAITZEN ADAR TXIKIA * HERRIA	LANDARE ENBRIOI	PLATER DOZENA-ERDI (ALDERAN- TZIZ)	ZENTZUA GALDU DUENA, ZORO AREA	HILOBI GEZIA	LERRO FORMAKOA KARDATZEN DUENA	
		OILAR JOKOA EGITEN DEN TOKI LISTU					
JAURESTEA, ADORATZEA HINDUA				UBEL ANPEREA			
					AHAIRE, DOINU MAGNESIOA		
OSPAKIZUN, FESTA	GALIOA IZUGARRI HANDI					DAGO EGINBEHAR	
		BINAKO MULTZOTAN				LARRU DEUS	
SINDIKATU ABERTZALEA PARE BAT							... HARTZE, ARNASGORA
	IODOA LANDARE LEKADUN					HARREMANA, ERLAZIOA BIHARAMUN	
SAMIN, OINAZE KUIA		JADA JAZZ ESTILO	JOAN DEN GAUEAN ZUHAUR	LEHEN BOKALA	ENERGIA HAUR HIZKERAN, ALTXATU	ROENTGEN ZAKURRA	
				* LELOA JAINKO EGIPTOARRA			
DOLARE TERAPEU- TIKAN ADITUA			UR ERTZEKO LANDA ELEKTROI				
					APAIZ NAGUSI JUDU		

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2		8	4		3		
5	8	7				1	4	
				7	1			
				2	3		7	
3		2	9	5				
			6					2
			7					4
	1				6			3
7				3	8	6		

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kalkulatzeko taula.
2. Zaintza, laguntza.
3. Zuhazpeko babesgune.
4. Tankerak.
5. Osorik, zehatz.


## EBAZPENAK

1. ABAKO
2. BABES
3. ABARO
4. KERAK
5. OSOKI

5	1	9	8	3	2	4	6	7
3	4	2	3	7	2	4	6	8
3	1	5	4	6	7	2	3	8
2	3	6	7	1	5	8	9	4
1	7	9	6	8	4	5	3	2
3	6	2	9	5	7	4	8	1
4	5	8	1	2	3	9	7	6
9	4	3	5	7	1	2	6	8
5	8	7	3	6	2	1	4	9
6	2	1	8	4	9	3	5	7




# Hug Roger Figuera eta Elisenda Tuneu

MIN PSIKIKOAREN SARETZAILE



## BARNE-AHOTSA

Psikiatrikotik bizirik atera diren aktibistak dira Elisenda Tuneu i Tarrés eta Hug Roger Figuera Bibre. Judi Chamberlin aktibista psikiatrizatuaren *On Our Own: Patient Controlled Alternatives to the Mental Health System* liburua gaztelarrera itzuli dute Katrakak laguntzaz. Figuera: "Liburuaren pdf-a lortu, eta itzultzen hasi nintzen Elisendari oparia egiteko. Bi kapitulu itzuli baino lehen, idatzitakoa erakutsi nion bertan aipatzen dena oraindik gaur egun ere sentitzen dugulako", azaldu du Figuerak. Azkenekoz psikiatrikoan sartu ostean Chamberlinen irudia ezagutu zuen Tuneuk: "Sufrimendu psikikoa politizatzearen beharra identifikatzen hasi nintzenezan topatu nituen haren lehen aipamenak, baina testu oso gutxi".

"Sufrimendu psikikoa dugun pertsonoi leporatzen zaigu ez garela gai gure bizitza kudeatzeko"

Osasun sistema mentalari aurre egiteko autogestioan oinarritutako alternatibak proposatzen ditu Judi Chamberlin aktibistak *Por nuestra cuenta: Alternativas autogestionadas frente al sistema de salud mental* ("Geure kabuz: osasun mentalaren sistemari autogestioan oinarritutako alternatibak") liburuak. Gaztelarrera itzuli dute Elisenda Tuneu i Tarrés eta Hug Roger Figuera Bibrek, psikiatriatik bizirik atera diren bi aktibistek. Profesionalik gabeko zaintza sareak sortu behar direla aldarrikatzen dute. Iruñeko Katakraken izan dira liburua aurkezten.

OLAIA L. GARAIALDE JOSU SANTESTEBAN

**Osasun mentaleko pazienteak, erabiltzaileak, giltzapetu psikiatrikoa eta bizirik dirauena gisako hitzak aipatzen ditu Judi Chamberlin egileak. Eztabaida dago izendapenaren inguruan?**

**Hug Roger Figuera:** Mugimenduko kideek *paziente ohiak* zirela esaten zuten, baina paziente hitza aipatzean diskurtso biomedikoa legitimatzen ari zirenez, *giltzapetu psikiatrikoa* erabiltzen hasi ziren, borrokalariagoak izateko. Azkenekik, *bizirik dirautenak* izatera pasa ziren. Hala ere, gaur egun dagoen errepresentaziorik handiena *erabiltzaileena* da, profesionalak erosoago daudelako hori erabiltzen.

**Elisenda Tuneu:** Gaur egun, harrotasun eroaren bueltan mugitzen den jendeak *eroa*-ren esanahia politizatu eta berenganatu du. Orduan, badago jendea *ero* gisa identifikatzen dena, eta beste batzuk oraindik sentitzen dutenak etiketa hori oso gogorra dela. Denetarik dago.

**Zein hitzekin sentitzen zarete eroso?**

**E. Tuneu:** Oraindik ez naiz *eroa* identifikatzen, nahiz eta prozesu oso gogorra bizi izan dudana; nahia-gut dut *bizirik dirauena* naizela esan. *Eroa* esatea oso gogorra da, konnotazio negatiboa duelako.

**H. R. Figuera:** Nire buruaz beste egiten saiatu nintzenetako batean, argi ikusi nuen ia hil egin ninduela psikiatrizazio prozesuak. Beraz, *bizirik atera dena* naiz.

**Uste duzue profesionalen helburua sendatzea dela?**

**E. Tuneu:** Bai, dudarik gabe. Baina eredu biomedikoak sufrimendu fisikoa eta psikikoa maila berean jartzen ditu. Hau da, uste da edozein arazo izanda ere aditu batekin konponduko dela. Guk aldarrikatzen dugu beti ez daudela adituak, eta eredu biomedikoak zaintza kolektiboa deslegitimatzeko duela.

"Kapitalarentzat funtzionalak izatea da sistemaren helburua; produzitzeari utzi nionean zirkuitu psikiatrikoan sartu nintzen".



Irudietan, Hug Roger Figuera. Elisenda Tuneuk ez du argazkietan atera nahi izan.

### Sendatu nahi izateak lotura dauka kapitalismoarekin?

**H. R. Figuera:** Sistemaren helburua da ahalik eta produktiboen diren subjektuak sortzea, kapitalarentzat funtzionalak izatea, eta ezin badugu, bilatzen dutena da produktu psikiatrikoak kontsumitzea. Nik hiru urte txar pasa nituen lanean, oso egoera txarrean nengoen, baina arazoa larriagotu zen lanera joateari utzi nionean. Produzitzeari uztean, zirkuitu psikiatrikoan sartu nintzen.

### Zer nolako aurreiritziak daude psikiatrikoan egondako jendearen inguruan?

**E. Tuneu:** Chamberlinek oso lanketa teoriko ona egiten du horren bueltan. Bera izan zen lehena aipatu zuena sufrimendu psikikoa dugun pertsonoi leporatzen zaigula ez garela gai geure bizitzak kudeatzeko, beste norbaiten menpe egon behar dugula, besteen oniritzia behar dugula eta erasokorrak garela. Komunikabideek asko zabaldu dituzte horrelako aurreiritziak.

### Eromena politizatzeaz gain, duindu ere egin nahi duzue?

**E. Tuneu:** Liburuak sufrimendua politizatzen du eta antipsikiatriari erreferentzia egiten dio. Psikiatra talde batek erabaki zuen diskurtso hegemonikotik aldentzea; hala ere, hainbat pribilegio dituzten profesionalak direnez, bigarren planoan uzten gaituztela diogu. Eromenaren mugimendutik aldarrikatzen duguna da prozesu psikiatrikoetatik bizirik atera garenok ezagutza propioa sortu dugula. Chamberlinek horixe aldarrikatzen du: esperientziagatik garelako profesionalak, eta ez ikasketez.

### Liburuaren hitzaurrean aipatzen duzue, esaterako, Chamberlinek feminismoan garrantzia izan beharko lukeela.

**E. Tuneu:** Eromenaren inguruko ezagutza aldarrikatzeaz gain, bere irudia ezagutzera eman nahi genuen. Oraindik ere bazterkeria sentitzen dugu espazio feministetan, eta, horregatik, uste dugu autokritika egin eta lan egiteko modua mantsotu behar dela, gu ere mugimen-

duaren parte izateko. Gaurko egunean ez gaituzte entzuten.

### Eredu biomedikoren aurrean autogestioa aldarrikatzen duzue. Nolako alternatiba irudikatzen duzue?

**H. R. Figuera:** Gauza txikiak sortu behar ditugu. Gure babes lekua etxea da, eta ez zentro handiak.

**E. Tuneu:** Profesionalik gabeko ereduak behar ditugu, haiek erraz hartzen dutelako boterea.

### Zer gertatzen da profesionalak alternatibetan parte hartzen dutenean?

**H. R. Figuera:** Chamberlinek bi eredu azaltzen ditu: batean, taldean profesionalak eta ez profesionalak daude, baina denborarekin taldea sortu zutenek alde egiten dute profesionalak hartzen dutelako boterea; bigarrenetan, profesionalak ez direnek aukeratzen dituzte nortzuk izanen diren profesionalak, eta urtean behin ebaluatzen dituzte boterea hartu ez dezaten. ●



# Bai azkar usteltzen direla ahuakateak Bilbon

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Intentzio oneko adierazpenak eta ahuakateak bi gauzatan dira antzekoak: klase ertaineko jendearen artean ondo samar saltzen dira eta konturatzen zarenerako erabat pasatuta daude. Horrelakoa da bizitza, bai mundu zabalean, bai Bilbon, zeina mundu zabalaren adierazpen partikular bat den, bere unibertsaltasunean berezia, baina -barkatuko didate gure hiri handieneko bizilagunek-, berezitasun horretan beste edozein lekuren ez hain desberdina azken finean.

Kargua berri duen politikari baten asmo onak jateko moduan ote dauden jakiteko, labana hezurreraino sartu eta ebaki buelta osoan, bi zati simetriko osatzen saiatuz. Gero bereizi bi puskak, ikusteko ea zer koloretakoa den egin duen adierazpenaren mamia. Erosi duzun egunetik 24 ordutara irekitzen baduzu eta polizia municipalak ateratzen bazaizkizu hiriko jende zaugarriena ostiatzeko gogoz, ez izan dudarik: adierazpen kadukatuak dira, kontenplaziorik gabe jaurti ditzakezu organikoaren kubora, Miribillaiko kantxan hiruko lerrotik azken segundoa saskiratzen ari zarela imajinatuz.

Pasa den igandea, 12:50: Bizkaiko hiriburuko Viktor kalean udaltzainek zenbait kale-saltzaileri atzaparra gainean jarri eta euren merkantziak kentzen hasi dira. Gaurko bazkaria edo bihar-ko faktura pagatzeko dirua, huskeria horiek saldu ala galdu: hori dago jokoan bature lagunartekoa ez den eta galtzaileak aldeztu aurretik

izendatuta dauzkan partidu honetan.

Poltsari tiraka, ahal duena salbatu nahian ari da saltzaile gazteetako bat. Uniforme fosforituz eta plastikozko eskularru profilaktikoz hornitutako poliziak jo dion ukabilkada zaldi bat etzateko modukoa da, hezurren batek kraska egiteko adinakoa -jotzeko modu horri darion mespretxuak hitz egingo balu-, eta hala ere saltzaileak ez du poltsa askatu, arrastaka segitzen du, badirudi lortuko duela bihar berriz kendu nahiko diotena gaur behintzat leku segurura eramatea, atzetik beste agente baten eskularruak heldu dion arte, eta tira zuk hemendik eta tira nik handik segi-

ko dute, baina historia nola bukatzen den jakin gabe geratuko gara, sarean zabaldu den bideoak orain kaleko giroa erakusten duelako.

Bizilagunak polizia municipalari garrasika. Txakurrak paseatzera atera eta interbentzio loriatsuarekin topo egin duen emakume batek udaltzainei esan die pasatzen ari direla; eta, beraz, lurrera bota dute, eskuak lotu dizkiote, munipautora garraiatu dute, beste norbaitek agenteei zeozer esateko baldin badauka, aldeztu aurretik jakin dezan nolako erantzuna jaso dezakeen. Bitartean munipauto gehiago iritsi dira Bidebarrieta kalera, ez dala esan baliabideak eskas direnik komertzio txikiaren aurka egindako krimenak geldiarazteko.

Oinez kale honetatik hamar bat minutura dago Bilboko udaletxea, non bezperan Juan Mari Aburtok etorkizunari ilusioz begiratzeko gogoia adierazi duen hirugarren aldiz hiriko agente-makila hartu duenean, baina onartuz kezkatuta dagoela, Vox alderdi ultraeskuindarrak azkeneko hauteskundeetan 5.000 boto baino gehiago lortu dituelako. "Abstentzioa eskubidea da, eta batzuetan alderdiei ohartarazpen edo zigor gisa funtzionatzen du, baina era berean, atea irekitzen die zentzu demokratikorik ez daukatenei", erantsi du.

Intentzio oneko adierazpenak, ilusioa, zentzu demokratikoa: munipak Zazpikaleak "garbitzen". Ireki arte ahuakateak ere itxura ona zeukan. ●



Kale saltzaile bat Bilboko polizia municipalak inguratuta pasa den igandean.



## Liburu berria

Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

Eskuratu ezazu ARGIAN

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) **943 37 15 45**

## Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurrak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak...

Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera eta liburuan bildu ditu Koldo Izagirrek.





Erakusketa

2023-06-17 / 2023-10-15

# Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian

Joaquín Sorolla, San Sebastián, 1899. Museo Sorolla, inv. 431

**SAN TELMO MUSEOA**

Zuloaga pza. 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)

Kultura eta Kirola Ministerioak, Sorolla Museoak eta Fundación Museo Sorollak ekoiztutako erakusketa, San Telmo Museoaren lankidetzarekin

ANTOLATZAILEAK

**STM**  
San Telmo Museoa

**DONOSTIA**  
SAN SEBASTIÁN

**donostia**  
kultura

**GOBIERNO DE ESPAÑA**  
MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

**MUSEO SOROLLA**

**FUNDACIÓN**  
MUSEO SOROLLA

**GOBIERNO**  
**SOROLLA**

**Eliphasletxe**  
Foru Aldeak  
Kultura, Turismo, Berriketa  
eta Lan-Dira-zerbitzua

**ETORKIZUNA**  
ORAIN

**ELISKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HONKUNTZA**  
POLITIKA SALA

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ERAKUNDE BABESLEAK